



ARGIA

EUSKAL PRESO POLITIKOEN EGOERA

Lorpenak, blokeoak eta arriskuak

25-31. orriak



Iragan uztailean presoek alde Blokeo Eguna egin zuten Ipar Euskal Herrian.

Aberatsak bunkerrak erosten ari dira euren zoratu duten klimatik ihesi

12 | NET HURBIL



"Nafarroako Artxiboak ez du ia liburu zaharrik erosten"

16 | ARITZ OTAZU



Glosa kantaera feministarantz pausoak Herrialde Katalanetan

32 | KULTURA

2.795 | 2022 / 10 / 09 | 4,00 €

2023 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Baratzea • Fruitu baratzea • Lore baratzea • Basoa

Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga

Noiz eta zer lan egin landareekin?

- Agenda honetan dauzkagu ilargiaren arabeko urte guztiko lanak.

Egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartu

Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteaz gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak gure bizitzako hitzorduak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak.

 **ARGIA**
BIZI BARATZEA

14€

+ 4€
bidalketa
gastuak

Neurria: 165 x 225 mm
220 orrialde
Espirala darama

Eskuratzeko:
argia.eus/azoka
(+34) 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS
- 22 | AMANCAY GAZTAÑAGA
- 23 | ANE LABAKA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | KIMETZ ARANA

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: JON URBE / FOKU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



12 | **ABERATSEN LUXUZKO ATERPEAK KRISI GLOBALARI AURRE EGITEKO**

Nicolas Goñik ondu duen Net Hurbilak azaltzen du munduko aberatsenak bunkerizatutako luxuzko etxeak egiten ari direla apartatutako eremuetan, "Gertaera" apokaliptikoez babesteko. Baina hain justu irtenbide horrek okertu egiten du larrialdi klimatikoa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ARITZ OTAZU

"Ez da bidezkoa Nafarroako Artxiboak urtean soilik 8.000 euro izatea antzinako liburuak erosteko"

Reyes Ilintxeta

25 | EUSKAL PRESO POLITIKOAK

Sakabanaketa amaitzear, baimenen blokeoa dator

Xabier Letona

32 | FEMINISMOA

Glosa feminista posible da

Uxue Alberdi / Pikara Magazine

36 | GIZARTEA | BIZIBERRITU PROIEKTUA

"Enpresetako soberakinei bizi berria eman nahi diegu, hezkuntza mundura ekarriz"

Maddi Viana

44 | KULTURA

Sin Límites edo nola errepikatu lehen mundu birari buruzko narratiba konbentzionalak

Santiago Eraso

52 | ARGI-KONTRA | ESTI URRESOLA

"Ikus-entzunezkoek botere eraldatzaile handia daukate"

Izar Mendiguren

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Maia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soruluz, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

113

Lau hamarkadatan egindako lan eskergak badirudi emaitza emango duela eta usansolotarren gehiengoaren nahia aitortuko dutela: Galdakaotik desanexionatu eta Bizkaiko 113. udalerrri bilakatuko da Usansolo. Bizkaiko Batzar Nagusietako hurrengo plenoan gaiaz erabakia hartuko dute, eta UH Usansolo Herria plataformaren arabera, ez dirudi udalerrria sortzearen aurka bozkatuko duen alderdi politikorik dagoenik. Desanexioaren inguruko herri galdeketeran, beti irabazi du udalerrri bilakatzearen aldeko aukerak, azkena aurtengo martxoan. Aldundiak herritarren erabakia aintzat hartuz gero, plataformak adierazi bezala, "ia 40 urtez borondate politiko barik eta bidean hamaika oztopo izan ostean, usansolotarrok borroka luze honen emaitza ospatu ahal izango dugu".

OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

AXIER LOPEZ





Zein da barazki ekologikoen kostu prezioa?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Biolur nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak "Duina" izeneko lanketa kolektiboaren ondorioak aurkeztu ditu. Baratze ekologikoen ekoizpen kostuak eta lanorduek zehatz ezagutzeko Bizkaiko eta Gipuzkoako 11 baratze proiekturen datu xeheak jaso dituzte. Ondorioetako batzuk izan dira zazpi barazki motaren ekoizpen kostuak altuagoak direla salmenta prezioa baino; lan hitzarmenak jasotzen dituen urteko ordu kopurua baino %10 gehiago egiten dituela batez beste baratzeekin bakoitzak; ekologikoan ari diren laborarien urte osoko soldata batez beste 14.990 eurokoa dela eta jasotzen dituzten dirulaguntzak diru-sarreraren %5,42 soilik direla. Azterlan hau eta sektoreak bizi duen prekaritatea plazaratzeko, eskualdez eskualde "Duina" proiektuaren aurkezpenak antolatu dituzte.

Ikerketa garatu duten Biolurreko eta EHUKo ordezkariak hartu dute hitza, baita egunero haien jardunaren datu xehe mordoak jaso behar izan dituzten 11 baratzeekin bik ere.

2030. urterako, "Baserritik mahaira" europar estrategiaren ildotik, Europar Batasuneko lurren %25a ekologikoan landuak izan beharko dute. Gaur egun EAEn ekologikoan lantzen diren lurren

kopurua %4,6a da. "Erronka hori jomuga izanda ezinbestekoa da baserritarren bizitzak duintzea" adierazi dute Biolurreko kideek. Ekologikoan abiatzen diren proiektu askok ez dutela denboran luze irauten azaldu dute, eta ezinbestekoa dela prekaritatea gainditzeko baldintzak jartzea.

Baratzeekin batez beste 1.953 ordu sartu dituzte lanean, lan hitzarmenak jasotakoa baino %10 gehiago

ENEK eta Biolurrek Excell taula landu bat prestatu zuten eta ENEK-ek aplikazio bat garatu ere bai, baratzeekin bakoitzak xehe idatz zitzan egunean egindako lanordu denak, eta jarduera osoari buruzko informazio detailatua. Aurkezpenean nabarmendu dute, datu bilketen lan hau oso nekagarria izan dela, baratzeeko lanei gaueko ordu txikitzen gehitu zaiena, baina edozein ekoizle baduela erraminta hori eskura, bere jarduera zehatz aztertu nahi badu, erabili ahal izateko. Proiektuan parte hartu

duten baratzeekin eskertuta agertu dira ikerketarekin ("nekagarria izan da, baina merezi izan du" adierazi dute) eta bakoitzak bere proiektuak jaso duen txosten berezituarekin, bideragarritasuna hobetzen lagunduko baitie.

100.000 gora datu bildu dituzte eta horietatik ondorioztatu dute baratzeekin batez beste 1.953 ordu sartu dituztela lanean, lan hitzarmenak jasotakoa baino %10 gehiago. Baina hau batez bestekoa izanik, bada baratzeekin lan hitzarmenak definitutako 1.800 ordu horiek baino %53 gehiago sartzen duenik.

Beste ezaugarri bat da oso lan anitzetan aritu behar dutela: sartutako orduen %65,83 nekazaritzara bideratu dute; %22,9 komertzializaziora; %5,57 kuadeaketara; %4,53 kolektibizaziora eta %1,16 zaintzara.

Oso lan lotua dela adierazi zuten, gaitxoaldien bat edo oporrak hartuz gero, ez dela batere erraza ordeko langile batek martxa eramatea, eta urteko irabaziak hain prekario izanik, ez dagoela marjinarik ordekoari txukun ordaintzeko. Ordezkapen zerbitzua hobetzea dela lehen-tasun nagusia azpimarratu dute.

Barazki bakoitzaren ekoizpen kostua kalkulatzeko hainbat aldagai hartu dituzte kontuan: lan zehatz bakoitzean sartutako orduak, baratzeiko zein azalera hartu duen labore horren lanketak eta zenbat denboraz, jasotako uztaren zenbatekoa, zehazki gai horietatik zenbat saldu den eta zein preziotan... Ekoizpen kostuak eta salmenta kostuak erakusten dituen taulak bihotza uzurtuko dio herritarrari, eta baratzeekin, agian, lehendik bazekiena zenbakitan erakutsiko dio: argia.eus/agroekologia kanalean aurkituko dituzue datuak zehatz-mehatz.

Eskubide Sozialen Kartak soldata duina 16.800 euroan jarria duela hartu dute abiapuntu alderaketa egiteko: baratzeekin ekologikoen batez beste 14.990 euro irabazten dituzte urtean. Nabarmendu dute zenbaki hauek denek oinarritzko premisa bat dutela: lurra jabetzan izatea. Eta hau arazo handia dela etorkizuneko nekazari ekologikoak gerturatzeko. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Gizon hori



UXUE APAOLAZA LARREA

Urriaren 2a Indarkeriarik Ezaren Nazioarteko Eguna omen da. Ezin "Indarkeriarik Gabeko" eguna izan, bestela ez dakit arnasa hartzetik harago zerbait egin ahal izango genukeen. Egun bakar batez indarkeriarik ezin erabiltzea tsunami bat litzateke sistemarentzat. Danilo Albin kazetariak Ukrainako gerrari buruzko albistean ekarri du gogora ospakizuna, aurrez aurre jarri ditugun bi herrialdeetan jazarpena gogortzen ari direlako gerrara joan nahi ez duten gizonen aurka. Titular izatea merezi izan duelako, agian, gerra horrek hainbat paradoxa jarri dizkigu begi bistan.

Gerra bera jo nahi izan genuen garaiz kanpokotzat, Errusiaren barrabaskeria anakronikotzat. Baina ez zegoen arazorik Zelenskyren gizontasuna goraiatzeko, militarrez jantzita erresistentziarako deiak eginez, armak hartu eta hiriak kalez kale defendatzeko, gizonak. Berak izan nahi zuen soldadu horien aurpegia, film bateko militar heroikoa. Eta errefuxiatu ukrainarrek hartu zituzten pantailak, agur irudiek. Haurrarekin ihes egitera zihoan emakumea, soldadu lanak egiten geratu behar zuen gizona. "Dena alperrik izan da" bat, gauzak serio jartzen direnean, zu ama eta ni soldadu, kolpetik ezabatu dira genero rolen *ezdakitzerak*. Audientzia Nazionalak ez omen die asilo politikorik ematen desertoreei, mutil gazte horiek gizonen rol hiltzaileena betetzeko daude, eta horregatik miretsi behar genituzke, beren herrialdearen alde hiltzen ari direla sinistuta, edo-zertarako prest daudelako. Eta hori ez da batere anakronikoa.

Azken aldian, nahiko argi dago, anakronikoaren aurkakoa dela desagertzeko bidean uste izan genuen gizontasuna. Han eta hemen. Oso lotuta ikusi ditugu berriro biziraupen batzuk; izan ere, gerra da kapitalismoaren sakoneko aurpegia, baita gizontasun mota batena ere. Beraz, arma bat ez hartu nahi izatea han, barku bat armaz kargatu nahi ez izatea hemen, bi gauza berdin dira; makinaria kapitalistari aurre egitea, gizon hori ez izatea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Pobretzea

Ehunka lagun bildu dira Baionan, erosahalmena gutxitzearen eta erretreten erreformaren kontra. LAB, CGT, FSU eta Solidaires sindikatuek deituta –CFDTk ez, ordea–, greba eguna izan da irailaren 29a Ipar Euskal Herrian. Manifestazioa burutu dute goizean Baionan eta Donapaleun ere egin dute elkarretaratzea, LABek deiturik.

Lan osasuna

ELA sindikatuak jakitera eman duenez, berak sortutako Bidelagun fundazioak salaketa jarri du Oñatiko Autlán EMD (lehenago CEGASA) enpresaren aurka, "bere langileak behartu dituelako azido sulfurikoaren hodei azidoen eta manganeso hautsaren esposizio maila onartezinetan lan egitera". Epaiaketa egin da eta epaiaren zain daude.

Gerra

Ukrainaren barnean kokaturiko Donetsk, Luhansk, Kherson eta Zaporizhia Errusiari anexionatu ahal izateko azken urratsa eman du Vladimir Putinek: Kherson eta Zaporizhia herri independente gisa izendatu ditu, dekretu bidez. Ukrainak ez du erabakia onartu eta "gogor" erantzuteko asmoa daukala argitu dio Moskuri.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Hormigoiairen kultura



ULA IRURETAGOIENA

XX. mendean zehar burutu dugun hirigintzak, hiria ulertu eta egiteko pentsamendu eta eraikuntza horrek, gizakiaren eta inguru naturalaren arteko lotura eraldatu du. Erdi Aroko hiria gotorturik zegoen fisikoki beste gizakien babesean baina naturarekin sinbiosian; hiri garaikidean hormigoizko horma mental bat zimentatu dugu hiria eta inguruko basoen artean, bata eta bestearen arteko lotura posibleak deseginez. Gizakia urbanoa da, zigortzen du hiriak.

Hormigoiairen kulturak lurraldearen irakurketa banatu eta hierarkizatu batekin batera, paisaia urbano batean hezi gaitu. Ohitu gara kaleak landareen presentziarik gabe zapaltzen, normala da landareak jardineretan herstea beraien bizileku naturaletik atzerriraturik. Ohitu gara kaleetako txorkoetan zuhaitz enborrak itotzen. Naturala zaigu azalera zabalak landararik gabe ikusten, basamortutze sentsazioa naturalizatuz. Historik gabeko urbanizazio garbiaren irudia sortu dugu. Kontrastean, potentea da gizakiak utzitako urbanizazioetan landarediak bere lekua nola hartzen duen.

Urriaren 3an Arkitekturaren Eguna ospatzen da mundu mailan, eta arkitekturari zuzendutako aktibitateak antolatuta dira leku askotan. Seguru naiz arkitekturaren festan hormigoiairen kulturaren aurrean, basoaren kultura azalduko dela zirrikituren batetik. Arkitektoen komunitatean, irakaskuntzan, filosofian eta psikologian bezala, zuhaitz, baso edota landareen presentziaren gertutasuna aldarrikatzen ari da, presentzia berak ekartzen dituen onurak defendatuz, kalearen garbitasun irudian arrakala berdeak sortuz. Eskoletako patioetan edota kaleetako urbanizazioetan landarediarekiko beste sentsibilitate baten zantzuak nabari dira hormigoiairen zulatze lanak burutzen direnean zuhaitz edo hazi bat landatzeko. Ekintza hauek inklusio ariketa bat bezala ikusi behar ditugu, hiriak kanporaturiko izaki bizidunei espazio emateko eraikuntza aktibitate baitira. ●

ANALISIA



EITB

Zaintzapean baina babesik gabe

LEIRE ARTOLA ARIN

Irailaren 26tik urriaren 3ra bitartean epaitu dituzte hamar gizon Arabako Probintzia Auzitegian, Arabako Foru Aldundiaren Sansoheta zentroan zaintzapean zeuden hainbat adin txikikori sexu abusuak egitea leporatuta. Sei urte luze itxaron dituzte biktimek, 2016. urtean salaketa jarri zutenetik. Ertzaintzak tarte horretan egindako ikerketaren arabera, 14 eta 17 urte bitarteko zazpi neska-mutil prostituitu zituzten akusatuen aulkietan eseritako hamar gizonen. Horietako lauk epaiketaren lehen egunean bertan onartu dituzte delituak, zigorra arintzeko: adin txikikoekin “sexu-harremanak edukitzeagatik ordaindu” zutela aitortu dute, “damututa” daudela baieztatu eta berriro errepikatuko ez dela agindu. Horrela lortu dute fiskaltzarekin akordioa, eta 1 eta 13 urte arteko kartzela-zigorrak onartu dituzte. Beste seiak sententziaren zain egon beharko dute; 29 urte arteko zigorrak izan ditzakete.

Izatez, auzipetuei delitu hauek egozten dizkiete: ustelkeria, sexu abusua, adingabekoei pornografia erakustea eta osasun publikoaren aurkako delituak. Baina eraso definitzeko modu desberdinak ikusi ditugu han eta hemen: ordaindutako *sexu-harremanak*, sexu abusuak, prostituzioa, adin txikikoak webgune baten bidez sexurako kontratatzea... Kasua argitara atera zenean, sektoreko hainbat profesionalak salatu zuten hainbat hedabidek “sentsazionalismoa” erabili zutela eta informazioa tratatzeko orduan ez zutela adingabeen babesa bermatu. Ondorioak biktimek eurek berretsi dituzte orain: deklaratu dute gertatutakoagatik “errudun” sentitzen zirela hasieran. Gazteek argitu dute momentu hartan ez zutela gertatzen ari zenaren kontzientziarik, eta denbora behar izan dutela ulertzeko eurak biktima direla, ez errudun. Azaldu dutenez, euren bizitzetan mina eragin die kontzientzia hartze horrek.


Gogoraraztekoa da adin txikiko neska-mutil hauek Arabako Diputazioaren zaintzapean zeudela eta Sansoheta zentroan bizi zirela sexu abusuak egin zizkieten denbora-tartean. Halere, diputazioak ez du inolako akatsik ikusi bere jardunean, eta agintariek behin eta berriaz azpimarratu dute fiskaltzak nahiz epaileek ziurtatu dutela aldundiak ez duela inolako erantzukizunik; eskuak garbitzeko baliatu dute hori. Ramiro González Arabako ahaldun nagusiak nabarmendu du delituak “zentrotik kanpo” jazo zirela, eta “zoritxarrez” zaintzapeko eta ez zaintzapeko gazte eta pertsonen gerta ahal zaiela berbera. Esanguratsua da, baina, auzia azalatu zenean polemika piztu zela diputazioen ardurapeko zentroen gabezien gainean. ELA, LAB, CCOO, ESK eta UGT sindikatuek gogor kritikatu zuten Sansoheta ez ezik, Bideberria zentroetako kudeaketa “zabarra” eta administrazioaren “jokabide axolagabea”. 2016an hogeitaz lagun bizi ziren Sansohetan, hamarrentzat prestatuta zegoen tokian. Auzi honek argi utzi du adin txikikoak, batik batik babesik handiena behar dutenak, babesgabe daudela sistema honetan; errudunak aurkitu ditu justiziak, baina erantzuleak ghiago dira. ●

11.571

gaztek betetako inkesta oinarri, ondorioa garbia da: eremu euskaldunenetako haurrek ere gaztelaniazko ikus-entzunezkoak kontsumitzen dituzte, alde handiz. "Egoera makurra" dela adierazi du UEMAK.

4

aldiz biderkatu da 2019tik hona ugalketa lagundu bidez bikotekiderik gabe ama izateko prozesua egiten dutenen emakume kopurua Gipuzkoan.



%4ra

jaitsiko du Espainiako Gobernuak hilekorako produktuen eta preserbatiboen BEZa 2023 urtean. %10ean dago orain. Emakumeen %22ak dio ezin dituela oinarrizko produktu horiek ordaindu.

"Laster 3.500.000 eusko izanen dira zirkulazioan"

RÉGIS ENERIZ

Euskal Moneta elkarteko kidea.

EUSKAL IRRATIAK (2022-09-29)



"TURISMO MASIBOAREN ITZULERAK ESPLOTAZIO ETA PREKARIZAZIO PROZESUAK LARRIAGOTU DITU"

SET

Turistifikazioari aurre egin nahi dion Europako hegoaldeko hirien sareak salatu du turismo masiboak kalte nabarmenak eragiten dituela eta administrazioak turismoaren bueltako enpresetara baliabide publiko ugari bideratzen dituela.

2022-09-27

"Kontrol poliziala gogortu egin da eta migratzaileek bide ez seguruak hartzeko baldintzak gauzatzen ari dira"

IRUNGO HARRERA SAREA

Arriskuaz ohartarazi du Sareak: "Aurrekariak badaude".

2022-09-29



IRUNGO
**HARRERA
SAREA**

Lau eguneko lan-astea, datutan

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Soldatak mantenduz, lau egunera murriztu dute lan-astea Britainia Handiko 73 enpresek, sei hilabete iraungo dituen proba pilotuan. Parte hartzen ari diren enpresek erantzun duten inkestaren arabera, produktibitatea ez da jaitsi, oso gustura daude esperientziarekin eta litekeena da proba pilotuaren ostean lau eguneko lan-astea mantentzea.

Gai honi lotuta orain arte egin den ikerketarik handienetakoa da eta proba pilotua azaroan bukatuko da. Orduan jakinaraziko dituzte emaitzak, aztertzen ari baitira lan-aste berriak nola eragiten dion produktibitateari, langileen ongizateari, ingurumenari eta genero berdintasunari.

Dena den, dagoeneko inkesta bat egin diete parte-hartzaileei eta 73 enpresetatik 41ek erantzun dute. Horietatik 35ek adierazi dute ziurrenik lau eguneko lan-astea mantenduko dutela esperientzia pilotua bukatu ostean ere. 41 enpresetatik, bik izan ezik gainerako guztiek ziurtatu dute bost eguneko jardunean zuten produktibitate bera mantentzen dutela edo hobetu egin dela. Eta sei enpresek kontatutakoaren arabera, produktibitatea nabarmen hobetu da, jarduna murriztearekin batera.

LANERA, ENERGIA HANDIAGOAREKIN

Enpresetako buruek diote antolamendu berriak denbora gehiago eman diela langileei ariketa egiteko, kozinatzeako, senide eta lagunekin denbora pasatzeko... eta beraien ongizatea hobetzeaz gain, lanera energia handiagoarekin doazela, produktiboago direla lanorduetan.

3.300 langile baino gehiago ari dira parte hartzen proba pilotuan, arlo ugarietakoak: banketxeak, marketina, arreta medikua, finantza zerbitzuak, merkataritza, industria...

Islandian ere egina dute proba, urteak iraun dituen gainera (2015etik 2019ra), eta "erabateko arrakasta" izan da. ●

NAZIOARTEA



ANDRÉ BORGES / AFP

Lula bueltan da, baina Bolsonaro bizirik dago

AXIER LOPEZ

Langileen Alderdiko hautagai Luiz Inácio Lula da Silvak irabazi du Brasilgo hauteskundeetan lehen itzulia, botoen %48,43 eskuratuta. Egungo presidente Jair Bolsonaro ultraeskuindarra bigarren lotu da %43,20ko babesarekin.

Garaipena lortu du hautagai ezker-tiarrak, baina bati baino gehiagori pozarekin batera atsekabea ere eragin dio. Izan ere, Lulak ez duenez botoen erdia baino gehiago lortu –zenbait inkestak iradoki zuenaren kontrara–, ezin bigarren itzulia saihestu, eta buruz buru lehiatu beharko dute Bolsonarok eta Lulak. Orain bi hautagaiek zeharka begiratzen diete hirugarren alderdirik bozkatuena izan denaren botoei (%4,26): Simone Tebet buru duen Brasilgo Mugimendu Demokratikoa (MDB), alderdi kontserbadorez osatutako blokea.

Politika neoliberalak, polarizazioa, armak eta gorroto-delituak dira lau urte hauetako gobernu ultraeskuindarraren ondarearen parte, sektore katoliko eta ebanjelikoetan oinarri militantea izan duena, "Jainkoa, familia eta askatasuna" leloari helduta.

Hamar pertsonatik zazpik beldur diote indarkeria politikoa jasateari, Violência e democracia: panorama brasileiro pré-eleições 2022 txostenaren arabera. Aurtengo lehen sei hilekoan bakarrik, SaferNet GKEaren arabera, 23.947 gorroto-delitu salatu dituzte Brasilen, 2021eko aldi berean

baino %67,5 gehiago. Gaur egun, arma gehiago dago zibilen eskuetan, estatuaren menpeko erakundeetan eskuetan baino, Brasilgo Segurtasun Publikoaren Urtekariaren datuen arabera. 2019an, zibilen 197.390 arma zeuden erregistratuta; 2022ko ekainaren amaieran, kopurua hiru aldiz handiagoa zen: 673.818. Bolsonaro presidentek sarritan egin die dei herritarrei armak hartzeko, "Herri armatua inoiz ez da esklabo izango" lelopean. Giro bortitz horrek aurpegiak ilunera erakutsi du Amazonian. Baso-soiltzeak, legez kanpoko meatzaritzak, ustelkeriak, krimen antolatutak eta milizien presentziak legerik gabeko lur bihurtu dute. Brasilgo gainerako eskualdeek baino indarkeria kasu gehiago (%38) gertatu dira han, aipatutako urtekariaren datuen arabera.

Kanpainan, Bolsonarok "Ongiaren borroka gaizkiaren aurka" gisa planteatu ditu hauteskundeak, bere burua balio kontserbadore eta kristauren salbatzaile gisa aurkeztuta, eta Lula, Venezuelakoa bezalako sozialismorantz eraman dezakeen "lapur" gisa jarrita.

Hurrengo lau urteetan Brasilgo gizarite polarizatuaren goi mandatari zein izango den erabakiko dute urriaren 30ean bozka eskubidea duten 156 bat milioi brasildarrek. Herrialdean ezezik, kontinente osoan eragin zuzena izango duen aldaketa politikoa eta ekonomikoa (edo jarraipena) dago jokoan. ●

Emakumeak ezpata-dantzan

📍 KATTALIN AGERRE / DANTZAN

📷 AMAIUR ARISTI / DANTZAN

MARKINA-XEMEIN / San Migel egunez, lehen aldiz genero bereizketarik gabeko ezpata-dantza eta aurrekua plazaratu dituzte Markina-Xemeingo Arretxinagako jaietan. Urteetako prozesuaren ondoren, azkenean, taldeko kide guztiek izan dute aukera plazan ezpata-dantza eta aurrekua egiteko, neskek zein mutilek. Pixkanaka joan dira taldean urratsak ematen.



Euskaltzaindia

Castillo Suarez idazle altsasuarra euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak. Patxi Zabaletaren lekua hartuko du Euskararen Akademian. Euskal Filologian lizentziaduna eta ogibidez toki-administrazioko euskara teknikaria da Castillo Suárez. Batik bat poesia lanak idatzi ditu.

Literatura

Ikusi Mikusi euskara hutsezko haur eta gazte literatura azoka urriaren 7 eta 8an egingo dute, Saran. Euskal Herri guztiko ikastetxeak hurbilduko dira eta ikasleek elkarren arteko topaketa egingo dute. Urriaren 7a eskolen eguna izango da eta 8a, familiaena. Jaialdiaren "aitabitxia" Ruper Ordorika izango da.

Futbola

Azaroaren 20an hasiko da Munduko Futbol Txapelketa, Qatarren. Jakina da kirol ekitaldi dizdiratsu honen B aldea: giza eskubideen urraketa, ustelkeria, langileen heriotzak, ingurumen inpaktua... Gero eta gehiago dira txapelketari boikota egiteko eskatzen dutenak, Frantzian, esaterako.

ABERATSEN LUXUZKO ATERPEAK KRISI GLOBALARI AURRE EGITEKO: ARAZOAREN SINTOMA ESANGURATSUA

Klima aldaketaren eta baliabide materialen urritzearen ondorioak nahaspilatzen zaizkigu –aurten azeleratze batekin– horiei loturiko gerra, erbesteratuen harrera, mantsotze ekonomiko eta eskuin muturraren igoerarekin, bertzeak bertze. Nahaspilatzea gehiketa baino okerragoa delarik, egoera hori krisi anizkoitza –*polycrisis*– izendatu du Adam Tooze ikerlariak. Panorama honetan kolapsoaren gaia bueltan dator, eta seriotan hartzen dute ere aberatsenek. Aldiz, ematen dioten erantzuna krisi anizkoitzaren adierazlea da.

 NICOLAS GOÑI

Gero eta gehiago eraikitzen ari dira, toki urrun eta diskretuetan: Zeelanda berria, Alaska, Ipar Amerikako Mendi Harritsuak, Tasmania... Aberatsenen artean moda berri bat zabaldu da: kolapso globalari aurre egiteko asmoz, luxuzko etxebizitzak ultra-babestuak, “bunkerizatuak”, bertan mundutik hesituak bizirauteko. Irailean argitaratu berri den *Survival of the Richest: Escape Fantasies of the Tech Billionaires* (“Aberatsenen biziraupena: teknologiaren milioi askokoen ihes ametsak”) liburuan Douglas Rushkoffek azaltzen du Ameriketako Estatu Batuetako aberatsenen obsesio berria: *The event* edo Gertaera. Horrela izendatzen dute haien ustez gertatuko den kolapso

globala, hau da, ekonomikoa, soziala, klimatikoa, eta –horien ondorioz– demografikoa. Haien dirutza inbertitzen ari dira “gertaera” horretatik beraien burua babesteko.

Gugandik hurbilago eta neurri xumeagoan –ez baitira Tasmaniara erbesteratzen– baina asmo beretik abiatuak, komunitate hesituak (*gated communities*) ere zabaltzen dira. Bertan ere aberatsak ingurukoengandik aparte bizi dira, ez bakarrik sozialki eta geografikoki, baizik eta fisikoki hesituz ere, haien seguritatea bermatzeko kamarak ezarriz eta guardia pribatuak kontratatuz. “Gertaeraz” amesgaitzik ote duten ez dakigu, baina prekaritateak bultzaturiko txiroen ahalzko joerak nahi dituzte saihestu.

Horietarik gehienak jabetza pribatuak izanik, zaila da jakitea zenbat diren eta non. Zeelanda Berrian, 2016ko lehen hamar hilabeteetan, atzeritarrek (gehienbat AEBetakoak eta Australiak) 360.000 hektare lur baino gehiago erosi zuten, aurreko urtean baino lau bider gehiago. Orduetik aurrera joerak gora egiten jarraitu du. Jabe ezagunetan aipatu daitezke Peter Thiel, PayPal-en sortzailea, James Cameron zinemagilea edo Julian Robertson *hedge-fund* edo estaldura-funts inbestitzailea. Fenomenoak negozio berri bat piztu du AEBetan, adibidez, 2020ko zenbakiei segi, Texasen egoitza duen Rising S Co. enpresak hamar bunker pribatu instalatu ditu Zeelanda Berrian. Oinarritzko

ABERATSEN LUXUZKO "IHESBIDEA"

Luxuzko bunker multzo baten sarrerak AEBetako Hego Dakotan. Vivos enpresa espezializatua da egoitza berezi horien eraikuntzan.



SCALZO/EPA-EFE/REX/SHUTTERSTOCK

aterpean 22 pertsona bizi daitezke eta horren prezioa 3 milioi dolarrekoa da, baina 8 milioiraino igo daitezke luxuzko bainugelak, joko-gelak, kirol gelak, antzerkiak edo ohe kirurgikoak gehitu nahi izanez gero. AEBetan ere, Survival Condo (Kansas) edota Vivos (Hego Dakota) enpresek, misil-biltegi ohiak berrantolatu dituzte, lurpean hamalau solairuko bizitegiak antolatuz, seguritatezko eta luxuzko elementuak elkartzuz. Etxebizitzetaz gain, baratze akuaponikoak, janari denda bat, igerilekua, antzerkia, liburutegia edota kirol gela ere aurkitu daitezke bertan, hiru urterako janari biltegiez gain.

GAINPOPULAZIOA ERRUDUN?

Kolapso arriskua gehienetan lotzen zaie baliabideen urritzeari eta klima aldaketaren uzkaile mugak (*tipping points*) gainditzeari. Baina horien oinarrian ohikoa da gainpopulazioa izatea erru nagusitzat. Egia da XIX. mendearen hasieratik munduko giza popula-

**Kolapsoen iruditeriak
erlijioan edo mito
zaharretan erroak ditu,
Mendebalde globaleko
klase ertainaren kezka
konkretuen itxuraren
atzean dagoena**

zioak izan duen gorakadak ez duela parerik giza historia osoan, ez bere taimainan ezta bere abiaduran ere. Ezin da baztertu gorakada honek eta hare-

kin bat datozen urbanizazioak eta industrializazioak aztarna sakona uzten dutela biosferan. Baina errua populazioak ote du?

1970eko hamarkadan Erromako Klubak bultzaturiko *Limits to Growth* ("Hazkundearen mugak") txosten famatua argitaratu zen, orduetik aurrera desazkundearen aldeko talde askok erreferentziatzen hartua. Haien modelizazioak aurreikusten zuen ere baliabide ustiapen eta populazio gorakada joerak aldatuko ez balira, XXI. mendean industria ekoizpenak eta populazioak beherakada gogor eta kontrolagaitza pairatuko zutela.

Baina modeloek errealitatearen irudi itxuragabetu bat eman dezakete, haien parametro garrantzitsu bat edo gehiagoren aldakortasuna ez bada ondo kontuan hartzen. Horietarik bat aurkitu dezakegu modelo horietan: pertsona bakoitzeko kontsumo maila. Zehatzago, modelizazio haietan agertzen diren pertsonakako zerbitzuak,

pertsonakako ekoizpen industrialia edota pertsonakako janaria, batezbertzeko balio gisan erabiltzen dira. Batezbertzekoak esangura du distribuzio normal batean (estatistikan "gaussian" deitzen dena), adibidez erdian maila ertaineko aberastasuna lukeen gehiengo batekin eta ertzetan simetrikoki milioidun guti batzuk eta txiro guti batzuk lituzkeena. Aldiz kontsumo mailaren distribuzioa oso asimetrikoa da: Stephen Pacala Princeton unibertsitateko ingurune erakundearen zuzendariaren arabera, 2015ean munduko 500 milioi pertsona aberatsenak BEGen isurketen erdiaren ardura zuten (Naomi Klein, *Everything can change* "Dena aldatu daiteke" 2015). Bere aurtengo txostenean, World Inequality Labek erakutsi du Frantziako Estatuko BEG Berotegi Efektuko Gas isurketen murriztapen xedea 2030ean lortzeko, %10 aberatsenak beraien isurketak %61 jaitxi beharko lituzketela, aldiz %50 pobreenek soilik %3. Zerbaki horien bidez zalu ikusten da "pertsonakako zerbitzuak" hitzaren atzean errealitate oso asimetrikoak daudela. Berdin ekoizpen industrialia gozatzeari edo kutsadura pairatzeari dagokionez.

Modeloek errealitatearen irudi itxuragabetu bat eman dezakete, haien parametro garrantzitsu bat edo gehiagoren aldakortasuna ez bada ondo kontuan hartzen



KOLAPSOAREN IRUDITERIA ETA GIZA HARREMAN EREDUAK

"Gertaera" bezalako kontzeptu batek azaltzen du kolapsoaren iruditegi berezi bat: bat-bateko fenomeno bat, mundua inoiz baino sakonago eraldatuko lukeena, oso denbora laburrean milaka milioi lagun hilik utziz (gosez, gatazkaz edo eritasunez), eta bizirik iraunen luketenen esku legokeela zibilizazio berri baten hasia. Renaud

Dutorme geografoak iruditegi hori analizatzen du *De quoi l'effondrement est-il le nom?* ("Kolapsoa zeren izena ote da?") 2016an argitaratu duen liburuan. Argi banatzen ditu alde batetik erlijioan edo mito zaharretan erroak dituzten fikziozko kolapsoen iruditeriak, Mendebalde globaleko klase ertainaren kezka konkretuen itxuraren atzean; bertzaldetik zabaltzen ari diren arrakala sozial eta espazialak, arrakala horien galtzaileentzat txirotzte larriko dinamikak bultzatuz, bertako bizi baldintzak jadanik "kolapsatuak" izanik, toki bakoitzean krisi anizkoitzeko osagaien proportzio ezberdinen ondorioz.

Aurreko garaietan ez bezala, gaurko munduko aberatsenak ez dute gainontzekoen "jaun eta jabe" izan nahi, ez dute ere luzaroko inperiorik eraiki nahi -izan inperio politikoa, industrialia edo bertze motako eragina duena-; Rushkoffek dioenez, haien helburua gainontzekoengandik ihes egitea da. Kolapsoaz duten iruditegian gizateria bera arrisku bat gehiago da, eta teknika berrienei esker jende xeheengandik lotura guziak moztu nahi dituzte.

Impresio ilun bat uzten du, dagoeneko aurrerapen teknikoengandik espero



—■— Mundu egonkortua —▲— Hobekuntza teknikak —◇— Oinarrizko hipotesia —○— "Limits to Growth" txosteneko emaitza —●— Behaketak



SEGREGAZIO ESPAZIALA

Paraisópolis auzoa, São Paulo hirian, Brasilen. Brasilgo favelak eta auzoalde aberatsen arteko kontrastea bereziki gordina da (Iturria: Hervé Théry 2012).

dena denentzako oparotasuna ez balitz bezala –joan den mendean espero zena–, baina bai guti batzuen salbatzea, gainontzekoen patua paira ez dezaten eta gainontzekoen haserrea sufritu ez dezaten.

DENAK ALA INOR EZ

IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen azken txostenean "trantsizio justua" aipatzen da klima hondamendia saihesteko bide ezinbertzeko gisa. Hots, gizateriaren oinarri materialaren aldaketa justua izan behar dela, aldaketaren ahalegina ez bazaie txi-roenei bakarrik inposatu nahi. Hori ez bakarrik injustiziarik nahiago behar zaio-lako justizia soziala, baizik eta trantsizioaren eraginkortasuna bera baldintzatzeko duelako justizia sozialaren mailak.

Klima hondamendia saihesteko trantsizioaren justizia sozial mailak trantsizioaren eraginkortasuna bera baldintzatzeko du

Argiki, aberatsen kontrako norabidea hartu dute, interdependentzia ikusi edo ulertu nahi ezean, eta "gertaerari" bizirauteko dagiten inbertsioek negozio bat gehiago elikatzen dute –luxuzko bunkerretan espezializaturiko enpresak–, arazoa gehiago sakonduz. Slavoj Žižek filosofoaren esaldi famatuak zioen errazago irudikatzen dugula munduaren amaiera kapitalismoaren amaiera baino. Halere, ultra-aberats horiei nahitaezkoa izanzen zaie interdependentzia onartzea, Rushkoffen arabera jadanik zalantzak baitituzte haien guardia pribatuen leialtasunari buruz. Pierre-Emmanuel Barré umoristak bere estilo garratzean erran bezala: "Etorkizunean ez bada lur gainean afrikarrik geratuko, nork garbituko ditu gure bunker postapokaliptikoak?" ●



Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



Aritz Otazu

LIBURU ZAHARREN AZKEN MOHIKANOA



EZ DA BIDEZKOA NAFARROAKO ARTXIBOAK URTEAN SOILIK 8.000 EURO IZATEA ANTZINAKO LIBURUAK EROSTEKO



Frantzia bereziki, baina mundu erdian barrena ibiltzen da Aritz Otazu XVI. eta XVII. mendeetako liburuen bila. Nafarroako eta Euskal Herriko historia ezagutzera ematea da bere pasioa eta zuzentzen duen Mintzoa Argitaletxearen xedea. Mintzatzen ematen du egun osoa: bezeroekin, saltzaileekin, erakundeekin, beste argitaletxe independenteetako kideekin, komunikabideekin... Kultur eragile bokazionala da, ezbairik gabe.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Liburu zaharren salerosketan zabilta, baina zertan datza zehazki zure lana?

Liburuak eta historia dira nire pasioak. Agiri eta liburu zaharren tasatzailea naiz. Teknikoki liburu 'zaharra' da 100 urte baino gutxiago duena, eta urte gehiago duena, aldiz, 'antzinakoa'. Nik, bereziki, Nafarroako historiarekin lotuta dauden XVI. eta XVII. mendeetako liburuekin lan egiten dut, eta horiek, gehienbat, Frantzia daude.

Lan honetarako historia ezagutu behar duzu, liburuak eta agiriak haien testuinguruan kokatzeko. Liburuen salmentaz gain, liburutegi pribatuen tasazioak ere egiten ditut aseguru etxeetara-

ko. Gauza bat da prezio-balorea tasatzea eta beste bat merkatuan lortzen ahal duzun prezioa.

Gaur egun Mintzoaren lana horrela banatzen da: %70ean liburu zaharrekin aritzen gara, eta %30ean faksimileekin eta dibulgazio liburuekin.

Mintzoarekin nola hasi zinen?

Aitak eta amak sortu zuten argitaletxea. Biak irakasleak ziren Oñatin. Aitari asko gustatzen zitzaion Nafarroako historia eta amari ere grina kutsatu zion. 1979an erabaki zuten lana uztea eta Mintzoa sortzea Nafarroako historia jendeari ezagutzera emateko helburuarekin. Garai hartan asko hitz egiten zen Nafarroaz

Euskadiren parte bezala, baina haiek Nafarroa Euskal Herriaren sehaska dela aldarrikatzen zuten. Aita hasi zen bildumak egiten eta garai hartan asko saltzen ziren, orain ez bezala: Arturo Campion, Nafarroako errege-erreginak, Iturralde y Suit, Navarro Villoslada... Gero dibulgaziorako liburu txikiagoak argitaratzearekin zioten eta 1995ean hasi ziren faksimile eta liburu zaharrekin lanean. Lehen askoz gehiago saltzen zen. Durangoko Azoka ikaragarria izaten zen. Franco hil ondoren jendeak gure historia ezagutze gogo bizia zuen eta asko saltzen zen.

Nik diseinu grafikoa eta inprenta aurreko tekniken ikasketak egin nituen. Orduan aitak zuen Serinte izeneko en-



Aritz Otazu Lujambio

IRUN, 1975



Editorea eta dokumentuen tasa-zailea da. Leongo Unibertsitatean espezializatu zen liburu zahar eta modernoan arloan. Nafarroako Errege Artxibo Nagusian trebatu da Paleografian. Mintzoa argitaletxeko zuzendaria da 2014az geroztik. Bere gurasoek 1983an sorturiko argitale-txe hori Nafarroako Historiako liburu zaharretan eta faksimile-edizioetan espezializatuta dago. Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseiluko kide da eta duela lau urte Nafarroako Editoreen Elkarteko burua (Editargi).

presan hasi nintzen lanean liburu-
fotolitoak egiten gero inprentara
bidaltzeko. Horretaz gain, bi urteko
master bat egin nuen Zaragozan eki-
taldien antolaketaren inguruan eta
enpresa bat sortu nuen.

Aita erretiroa hartzeaz zenean, hasi
nintzen liburu zaharretara hurbiltzen
eta asko ikasi nuen bai nire kabuz bai-
ta ikasketa desberdinak eginez ere: pa-
leografia Nafarroako Artxibo Nagusian,
tasatzaile espezialitatea Leongo Uniber-
sitatean, ingelesa, frantsesa... ez dago
karrera bat propio honetarako, beraz,
horrela joan naiz ikasten denborarekin.
Argitaletxeko zuzendaritza 2014an har-
tu nuen. Aita eta biok oso ondo molda-
tzen gara eta hark harremanetan jarrai-
tzen du lanarekin, bere pasioa delako.

Nolakoa da zure lana?

Niri lan hau asko gustatzen zait. Berdin
zait ordu pila ematea edo autoa hartu
eta bezero posible batekin hitz egitera
Tolosaraino [Okzitania] joatea, adibi-
dez. Gustatzen zait.

Italian, Alemanian,
Frantzian... feria asko-
tara joan eta kontaktu
pila egiten dut, baina
gehienetan esku hu-
tsik itzultzen naiz Na-
farroako eta Euskal
Herriko historiarekin
lotutako liburuak bai-
no ez ditudalako erosten.
Horretan dabiltzan azken
mohikanoak gara gu.

Liburu zaharrak nori saltzen dizkiozu?

Interesa duen edonori. Gu ez gara an-
tikuariok. Haiak milaka liburu dituzte
eta guk ez. Guk oso liburu gutxi eros-
ten ditugu, baina oso garrantzitsuak.
Kontaktu asko dugu eta badakigu
nor egon daitekeen interesatua hala-
ko lanetan. Instituzioek ere erosten
dute, baina ez asko. Nafarroan, adi-
bidez, Nafarroako Artxibo Nagusiak
oso gutxi edo ezer ez. Ni Nafarroako
Kulturaren Kontseiluan nago eta esa-
ten diet ez dela bidezkoa soilik 8.000
euro izatea urtean antzinako liburuak
erosteko. Artxibo batek ez du begira-
tu behar jendeak liburu hori irakurri-
ko duen ala ez. Ondare bibliografikoa
gordetzea eta babestea bere egitekoa
delako erosi behar du. Eta horretan
parlamentuko alderdi politiko guztiek
egiten dute huts.

Bestalde, askotan kritikatzeko gaituz-
te esanez aurkitu dugun liburu zahar
hori jada ezaguna zela. Ados, ikerlari
batzuentzat ez da agian berrikuntza
izango, baina jende askorentzat bai.
Pentsa, batzuek uste dute euskara Sa-
bino Aranek asmatu zuela. Horrelako
jendea dago hemen bertan, Nafarroan!
Gizartean kultura zabaltzen ez badugu
ezinezkoa izango da aspaldiko liburuak
baloratzea. Horregatik uste dut libu-
rutegiek eta artxiboen liburu horiek
erosi beharko lituzketela, gero jendeari
eskaini ahal izateko.

Zein da aurkitu duzun harribitxirik handiena?

Garrantzitsuena izan da *Mithridates*,
1610ean Caspar Waser teologo eta
linguistak Zürichen idatzi zuena. Har-
tan aipatzen diren munduko 130 hiz-
kuntzen artean dago euskara. Latinera
100 hitz itzultzeaz gainera, Euskal He-
rriari sei orrialde eskaintzen dizkio.
Lanaren beste ale batzuk munduko
liburutegi prestigidunetan
daude, eta nik Turinen loka-
lizatu eta erosi nuen bat
2020an.

“
**Liburuak dendan
erosiz gero gure
industriari ematen
diogu dirua, bestela
Amazoni”**

**Eta zergatik egiten
dituzue faksimileak?**
Faksimileek balio dute
gure historia finkatzeko.
Hor agertzen dena ez da
historialari baten iritzia,
baizik eta egiazko agiri bat

modurik fidelenean kopiatuta
eta notarioek hala bermatuta. Adibi-
dez, Nafarroan gaztelarren inbasioa eta
konkista militarra izan zirela frogatuta
dago. Ez da iritzi edo interpretazio bat.
Oso zaila da faksimile bat egitea. Horre-
gatik, guk ez ditugu ateratzen txurroak
bezala, soilik agiri eta liburu oso gar-
rantzitsuekin egiten da.

Nire ustez, izugarria izan zen aitak
honetan eman zuen urratsa. Hasi ze-
nean den-denek esaten zioten porrot
hutsa izango zela, baina zortzi faksimile
atera ditugu orain arte. Jendea oso ohi-
tuta dago artea koadroetan ikustera,
baina ez horrenbeste faksimileak duen
lana baloratzeri.

Orain arte zortzi plazaratu ditugu,
haien artean Nafarroako lehenengo
historia, 1632koa; Nafarroako lehen
konstituzioa, 1174koa; *Matxin Zalba-
ren Gutuna*, 1416. urtekoa, Erdi Aroan
euskaraz eta nobleen artean idatzita-
ko testurik luzeena; *Amaieurko gutunak*,

51 gutun heroï legitimista garrantzitsuek sinatuak eta Jaime Velaz de Medrano gotorlekuko alkaideari bidaliak; 1835eko Nafarroako errege-erreginen zuhaitz genealogikoa edota *Lingua Navarrorum*, 1167ko agiria non Antso VI.a Jakituna Nafarroako Erregearen garaian, lehen aldiz identifikatu zen euskara *Lingua Navarrorum* edo nafarren hizkuntza bezala.

Batzuek uste dutenaren kontra, lan hauen eroslea ez da beti pertsona diruduna. Finantzatzen da eta hilabetean 100 euro edo gutxiago ordainduta eros dezakezu. Gakoa da pasioa izatea eta altxor horrek zerbait transmititzen dizula sentitzea. Bakar batzuek inbertsio gisa erosten dute, baina hori ez da ohikoena.

Zein izan da arrakastatsuen?

Zalantzarik gabe *Lingua Navarrorum* agiriarena. 365 ale atera genituen eta berehala agortu ziren. 900 euroan saldu ziren lehenak eta 2.000 euroan azkenak. Hori ere geratzen da: eskaria handituz gero prezioa ere goratzen da, eta eskari handia izan zen.

Faksimile horiek ateratzen ditugu jendeak agiri hauek ikus ditzan. Leitzako Udalak, adibidez, ekimen polita egin du horren inguruan: *Lingua Navarrorum* eta beste liburu eta agiri batzuk erosi, eta udaletxean erakusgai jarri dituzte, jendeak haietan biltzen diren gure historiaren parteari ezagutzeko aukera izan dezan.

Nolakoa da faksimile bat egiteko prozesua?

Lehen urratsa da ale originala manipulatze baimena lortzea eta hori ez da beti posible. Tramite asko egin eta aseguruak ordaindu behar dira. Gero material egokienak lortu behar dituzu. Guk papera Italian erosten dugu. Oso paper bereziak dira eta proba asko egin behar denez, garesti ateratzen da.

Hurrengo faksimileren bat baduzue orain buruan?

Heldu den urtean beteko dira 600 urte Karlos III.ak Batasunaren Pribilegioa eman zuenetik, hau da, Iruñeko lehen legea, eta horretan ari gara, baina ez dakit garaiz ibiliko garen, oso lan konplikatu



delako. Bi metroko agiri bat da, dena eskuz egin. Bat egin genuen Joseba Asironen enkarguz Iruñeko udaletxean jartzeko eta han dago ikusgai. Beste bi ale egin genituen: bat katedrallean dago eta bestea artxibo nagusian.



Off the record

NON OTE?

“Askotan galdetzen diot neure buruari: Non dago gure kultura? Non daude historian Nafarroan argitaratu diren liburu guztiak? Ni ziur nago nonbait daudela. Albreteko Juan erregeak liburuz eta agiriz betetako gurdiak eta gurdiak eraman zituela irakurri dut agiri batean. Non ote daude?”

Editargi Nafarroako Editoreen Elkarteko burua zara. Zein da zuen egitekoa?

Elkarte honetan hamahiru argitaletxe independente daude, hau da, ia Nafarroako guztiak. Gure xedea da jendeak ezagutu ditzala guk plazaratzen ditugun liburuak. Jendeak uste du horretarako aski dela liburu azoka, baina hor, gehienbat, nobedadeak ateratzen dira, bai estatu mailakoak, bai atzerrikoak, baina Nafarroako liburuak oso presentzia mugatua dute. Oso katalogo indartsua dugu, urte asko daramagulako lanean; hori dena erakutsi nahi dugu, bai azoka medio, bai beste hainbat kultur ekitaldiren bidez, liburu dendetako erakusleihatokian toki bat izatea oso zaila delako. Sei urte daramatzagu honetan eta lau daramatzat nik presidente gisa.

Zenbat liburu editatzen dira urtean, batez beste, Nafarroan?

Gure bazkideen artean, batez beste, 200-230 liburu plazaratzen ditugu urtero. Argitaletxe

handiak daude, Pamiela edo Txalaparta gisakoak, 50en bat liburu ateratzen dituztenak, eta beste batzuk askoz xumeagoak. Mintzoak 5-7 liburu egiten ditu urtero.

Txosten batzuek diote 700 bat direla Nafarroan argitara ematen diren lanak urtean, baina hor sartzen dira Nafarroako Gobernuaren argitalpenak, aldizkariak... Den-dena. Nire ustez, Nafarroan oso ondo dago liburuaren edizioa eta kalitatezko lanak egiten dira.

Euskarazko lanen proportzioa zein da?

%20 gutxi gorabehera. Dirulaguntzak izaten dira horretarako, hemen Nafarroan euskarazko liburu gutxi saltzen delako. Oso liburu onak ateratzen dira, baina, hala ere, gutxi saltzen da. Lortu behar dugu jendeak interes handiagoa izatea eta ez bakarrik dirulaguntzak izatea.

Horretarako gehiago begiratu beharko litzazieke merkatuaren gustuei?

Oso gai konplexua da. Eskaria sortu behar da eta ez mugatu gaur egun dagoen egoerara. Horretarako, alde batetik, euskarazko liburuak liburu-denda eta toki

guztietako liburutegi publikoetara iritsi beharko lirateke. Hori lortzeko beste politika batzuk beharko lirateke, ez bakarrik argitara emateko diru-laguntza bat eman eta kito. Liburuak erosi eta salmenta ere erraztu beharko lukete. Eta beste alde batetik, hipokrisia gutxiago beharko genuke.

Zergatik diozu hori?

Dirulaguntzarik ez badago argitaletxe batzuek ez dutelako euskaraz argitaratzen. Ez dut esan nahi denek euskarazko liburuak atera behar ditugunik, bakoitzak bere ildo propioa duelako, baina profesionalen artean hitz egin beharko genuke, idazleak, itzultzaileak, argitaletxeak... erabakitzeke zer lan eta nola egingen dugun. Norberaren lana oparitu gabe, denok ahalegin bat egin beharko genuke benetan salduko diren liburuak egiteko. Denon inplikazioa behar da, biltegietan euskarazko liburu gehiegi ikusten direlako.

Krisiarekin nola zaudete?

Txarto. Mintzoan, adibidez, liburu zaharrak oso ondo saltzen dira, baina oso gutxi dira. Poltsikokoak, aldiz, gaizki doaz. Salmenta %30 jaitsi da azkenaldi

honetan eta paperaren prezioa %40-50 igo da. Banatzaileek %50 eramaten dute, egileek %10, beraz, guretzat irabaziak ikaragarri murriztu dira.

Egileek %10 kobratzea ez da gutxiegia?

%10 gutxi da, ados, baina hori da legeak markatzen duena. Argitaletxeak, %40arekin egin behar du liburu editatu, maketatu, inprimatu eta salmentarako prest utzi. Egile batzuek nahiago dute auto-edizioa egin eta banaketa beraiek egin, liburu-dentatara aleak eramanez. Guk hori ulertzen dugu, noski, baina kasu horietan haiek hartzen dute lan eta arrisku guztia.

Amazonen ere argitaratzen dute batzuek...

Guretzat Amazon ez da laguna. Gure liburuak Amazonen saltzen dira, baina argitaletxeok ez ditugu han jartzen. Gai horrekin ere oso zuriak gara. Guk ez dugu esaten Amazonen kontra egin behar denik, ia denok erosi dugulako zer edo zer noizbait plataforma horietan eta horren aurka ezin delako jo. Baina bai eskatzen ahal zaio jendeari esfortzu bat egiteko eta gure liburuak dendetan erosi

ditzala, nahiz eta Amazonek azkarrago bidali liburu etxera. Benetan ezin duzula lau egun itxoin? Liburuak dendan erosi gero gure industriari ematen diogu dirua, bestela Amazoni.

Gainera plataforma hauek iristen zaien gutzia ematen dute argitara. Ez dago inolako galbaherik. Agian, egilearen iritziz liburu bat oso ona izango da, baina ez du kalitate aski izango merkatura ateratzeko. Eta horrek baditu ondorioak. Guk ez ditugu liburuak txurroak bezala egiten.

Urriaren amaieran Nafarroako VI. azoka egingen duzue.

Nolako izanen da?

13-15 argitaletxe egongo gara. Argitaletxeek gain, elkarteek eta liburuak egiten dituzten entitate pribatu guztiek har dezakete parte. Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza dugu, baina Iruñeko Udalarena ez. Aurten Gazteluko Plazan egongo gara eta aurreko asterako egitarau polit bat prestatu dugu: emakumea edizioan, hizkuntza gutxituetara egindako itzulpenak, liburu inkunabileen inguruko saioak... Oso azoka interesgarria da eta oso baliogarria liburuaren mundua jendearengana hurbiltzeko. ●

Audio eta bideoen transkripzio eta azpigituluak

automatikoki eta minutu gutxian euskaraz eta gaztelaniaz

aditu.eus



aditu
elhuyar

Editatzeko aukera
Itzultzeko aukera: 6 hizkuntza



Fikzioen amaiera Ukrainan

2014an Ukrainako gobernu kolpistak Donbasseko eskualdeen kontrako gerra hasi zuenean Terrorismoaren Kontrako Operazio gisa izendatu zuen eraso. Kieven agintea berriro hauteskundeetan hautaturiko presidente batek –Petro Poroxenkok– hartu zuenean, berdin izendatu zen, 2018an Indar Bateratuen Operazioa bezala berri izendatu zuen arte. Halere, bere adierazpenek fikziotik gutxi zuten Donbasseko jendeaz hitz egiten zuenean: “Guk lana dugu, haiek ez. Pentsioak ditugu, haiek ez. Haurren eta erretiratuen mantenua dugu, haiek ez. Gure seme-alabak haurtzaindegietara eta eskoletara joango dira, beraienak sotoetan egongo dira eserita. Ez baitakite ezer egiten! Horrela irabaziko dugu gerra hau”.

Gerra egon bazegoen, horregatik Poroxenkok Minkseko akordioak babestu zituen errusiar armadak edota mertzenarioek sartu-irten indartsu eta azkar bat egin zutenean Donbasseko milizien alde. Ukrainak eta Errusiak bake-prozesurako protokoloa sinatu zuten Alemaniaren eta Frantziaren bitartekaritza-rekin. Honek Kremlinaren fikzioetako batekin amaitu zuen: Moskutik kontaktzen ziguten ipuinaren arabera Errusiak ez omen zuen-eta zerikusirik Donbaseko gerrarekin. Bestalde, berriki Poroxenkok argi utzi du ez zirela Vladimir Putin ez fidatzen eta inoiz ez zutela asmorik izan akordioek ziotena betetzeko, bere esanetan ekonomia indartu eta berrarmatzeko denbora irabazteko tresna bat

Putinen agerraldi laburra armadako erreserbisten mobilizazio partziala iragartzeko Operazio Militar Bereziaren orain arteko porrotaren konstatazioa da

baino ez ziren izan. Azken honetaz ez dago dudarik, Jens Stoltenberg-ek, NATOko idazkari nagusiak, esan du aliantza militarra ukrainar armada entrenatzen, ekipatzen eta laguntza ematen dagoela 2014tik.

Zortzi urte eta gero Errusiak Ukrainako inbasioa hasi zuen. Kremlinak Operazio Militar Berezia bezala izendatu zuenak egun edo aste gutxi batzuk soilik iraungo zuela uste zuen. Errusiarrek inbasioaren shocka erabili nahi zuten ukrainar gobernu bortxatzeko akordio bat sinatzera Mosku nahi zuen terminoetan edota gobernu aldaketa bat laguntzeko. Horren adierazle izan ziren inbasioa hasi eta hurrengo egunean Putinek egin zituen adierazpenak eskatuz Ukrainako armadako buruei estatu kolpe bat emateko. Ez zen gertatu.



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Orditik errusiar gobernu Operazio Militar Bereziaren fikzioa mantentzen saiatu da Kharkiveko eskualdean izandako galera handiak gertatu arte. Kontua da operazio militarren eskemapean Errusiak ez duela posible ikusten sufrituriko porrotaren aurrean erantzun arrakastatsu bat ematea eta gerraren joan enbidoa bota du. Putinen agerraldi laburra armadako erreserbisten mobilizazio partziala iragartzeko Operazio Militar Bereziaren orain arteko porrotaren konstatazioa da.

Errusiak Ukrainako lau eskualde anexionatu ondoren hauek erasoren bat jasotzen badute Putinek iragarri du Errusiar Federazioaren kontrako eraso bezala kontsideratuko dituela, horrela, operazio militar berezi baten eskematik gerra eskemara pasatuko da Mosku. Egoera larriagoa eta arriskutsuagoa bilakatuz. Arazoa da interes ugari daudela gerra betikotzeko. Orain aste batzuk *Ukrainska Pravda* egunkari digitalean Ukrainako goi funtzionario baten adierazpenak jasotzen ziren esanez apirilean Errusia eta Ukraina artean akordio batera iritsi zirela Turkiaren bitartekaritza-rekin, baina azkenean Ukrainak ez zuela sinatu ardatz anglosaxoiak oztopatu zuelako: Boris Johnsonek sinadura gertatu aurretik Kieverako hegaldi bat hartu zuen. Izan ere, gerra honetan dagoen beste fikzioetako bat da esatea Ukrainako gobernuak soberania duela gerraren garapenari buruzko edozein erabaki hartzeko. ●

Bisitaria



AMANCAY GAZTAÑAGA
MUSIKARI, AKTORE ETA
ANTZERKI ZUZENDARIA

PAULA ESTÉVEZ

Kaka zaharra, euria. Ze laburrak diren udak Euskadin, fuck... Mina Harkerrek, nagiak emeki kendu ditu, luzaketa profesional bat egin eta gauero ko erronda egiteko prestatu da. Bost etxe, gau bat, ez da lan makala.

Familikoek, Mina jarri zioten; Bram Stokerren *Dracula* eleberriko protagonista bezala. Minari hasieran ez zitzaion batere gustatzen izen hura, Mina Harker. Euskadin barregarria zela izen ingeles bat izatea eta ea nork irakurri ote zuen liburu hura hemen: *hura edo beste edozein, inork ez du libururik irakurtzen iada*, errepikatzen zion bere buruari. Orain ordea, bere *lookarekin* bat datorrela iruditzen zaio; begi urdin ederrak, eta esfinge batenarekin alderatu daitekeen mutur zorrotza. Argala da Mina, goseak ere laguntzen du horretan, noski.

Salto arin batekin martxan jarri da. Egurrezko ateari bultza: *Hau ere konpondu beharko dute, egunen batean ezin izango dut barrura sartu.*

Mina oso metodikoa da, egunero ordu berean agertzea ezinbestekoa da bere errondan arrakasta izan nahi badu. Peiorenan hasten da, beti.

Peio: 45 urte. Bakarrik bizi da. Apolitikotzat du bere burua: inork ez omen du bera errepresentatzen. Juergak ditu gus-tuko. Zineman ikusi zuen azken filma: *Ju-*

rassic Park. Ez dakit zergatik eman behar zaion horrenbeste diru kulturari, da bere esaldirik txalotuena afari baten bueltan. Ez du libururik irakurtzen.

Bere jardinean belarra ongi moztuta izaten du Peiok beti. Mina, beirazko atearen aurrean jarri eta suabe kolpatu du hau. Peio sukaldatzen ari da. Hori ongi egiten du. Sutondotik gorputza biratu eta keinu bat egin dio Minari: *Itxaron preiox-a, oraintxe emango dizut zurea.*

Sukaldeko atea ireki du. Mina etxe barrura sartu da. Peiorekin gauero da gauza bera, igurtzi asko eta gutxi bat edo beste. Gaur, ordainetan, urdaiazpiko zati bat erori da.

Bigarren etxea konplikatua da. *Gaurko eguraldiarekin paso egin beharko zenuke Mina*. Ez du paso egiten.

Lander, Jon, Mikel, Kepa eta Aizea (h gabe): 27 urte. Unibertsitatean ezagutu ziren. Kanpoan master batzuk egin ondoren berriz elkartu dira iraultzarako prest. Guztien artean ordaintzen dute alokairua.

Minak, egurrezko harresira salto egin eta garaje gaineko leihotik sartu da etxe barrura. Badaki zer den tokatzen dena: *“chachara” asko eta ordainsari gutxi*. Aizeak (h gabe) ondoan eseritzeko keinua egin dio. Landerrek igurtzi batez agurtu du pasaran, Joni petaren txusta kendu

dion bitartean. Mikel eta Kepa gizon batek esandakoari buruzko zerbait eztabaibatzen dabilta.

Fuck off! Banekien, gaur paso egin behar nuela. Twitter, kexa, zigarro, zerbeza eta garrantzi handiko hausnarke-ten artean pasa ditu bost ordu, baino ez dute patata miserable bat jatera ere gonbidatu.

Minaren tripak kexu dira. Hirugarren etxea begiztatu du. Azkarra izango da.

Lorea eta Kirmen: 30 eta 36, furgoneta *camperizatu* baten jabe dira. Ez dute hondakinen sailkapenik egiten.

Minak muturrarekin plastikoen edukiontzia ireki du. *Bingo! Lasaña oso bat niretzat, oraindik epel dago...*

Learen usain goxoak gidatu du bosgarren etxeraino. Haurraren gelako argia piztuta dago. Munstroek ez dute argia maite eta Leak ez ditu munstroak maite. Ninja baten moduan teilatura egin du salto Minak eta handik gelara. Lea zain dago, beso txikiak zabalik. Mina bere altoan uzkurto da.

Marenek, Learen gelako atea ireki du poliki. Katua eta haurra lo ikusteak ba-kea ematen dio. Gauero furtiboki etxean sartzen den katu horri geratzeko eskatuko lioke gustora, baina Mina Harkerrek bere askatasuna du maite, guztiaren gainetik. ●

Urri



**ANE LABAKA
MAYOZ
BERTSOLARIA**

Erleak urri, ezta urri abarasketan. Koralezko arrezifeak urri itsaspean, eta mendietako glaziarrak, eta pagadiak, eta hariztiak. Baso sarriak urri, birika-oihan berdeak gero eta urriago. Idortu gabeko lurra urri; idortzeaz. Goroldioa urri. Urmaelak, lakuak eta ibaiak urri. Izotza, ur edangarria urri. Haziak urri, mineralak urri. Garia, kakaoa urri. Koltana, kobrea, ikatza, litioa, nikela, petrolioia, gas naturala urri. Balea urdinak, hartz polarrak, koalak, dordokak, pingui-noak, otsoak urri. Tximeletak urri –ume garaiko oroitzapenetan orain baino askoz gehiago agertu ohi zaizkit beti–.

Herriko denda txikiak urri. Sasoian sa-soikoa urri, bertakoa urri. Baratzeak gero eta urriago. Bizi-itxaropena betiereko, baina jaiotza-tasa urri. Lan kontratu duinak urri, laguntza sozialak urri, zaintzarako sareak urri, pentsioak urri. Alokairu zentzuzkoak urri. Gazteen emantzipaziorako bideak urri. Kontziliaziorako egiazko aukerak urri. Emakumeak urri erabakiguneetan. Kulturgileentzat heldulekuak urri. Ikerlariantzat etorkizunerako promesak urri. Kanpotik datozenentzat aterpeak, paperak eta errespetua urri –azal eta begi eta ile kolorearen arabera, beti ere–. Zahar goitzetan lekua urri; ospi-

taleetan ohe libreak urri. Medikuek urri; herriko osasun-etxean goiz osoan zehar jo eta jo ari den telefonoaren erantzungailu automatikoa sutan. Pazientzia urri; itxaron-zerrendak luze, amaigabe. Izenez behintzat publikoa izaten jarraitzen duen guztia urri.

Giza eskubideak urri. Adierazpen askatasuna urri. Justizia urri. Enpatia, elkartasuna, kolektibotasuna urri. Autokritika, kontzientzia, ardura hartzea urri. Teoriatik praktikarako jauziak urri. Alternatiba errealak urri –eta izan badirenak ikusezin–. Irudimena, sormena, ilusioa urri. Ausardia, indarra, ekiteko gogoia urri. Barrea urri.

Lo-orduak urri. Sofan luze etzanda ezer egin gabe egoteko tartekak urri. Aisialdia, denbora librekoa urri. Sukalderako denbora urri. Sexurako denbora urri. Irakurtzeko denbora urri. Denbora urri. Gorputza urri. Arnasa urri.

“Gutxiren ongizateak elikatzen du auzitzen ondoeza”.

Jose Luis Otamendiren *Landura* liburuan arkatzez azpimarratu nuen duela gutxi, eta esaldia nirekin daramat orduz geroztik. Akabo oparotasun garaiak. Orain oinarritzakoa urri, eta premiazkoa urre. ●

Turismo mentala



**EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLE ETA
IRAKASLEA**

Parke tematiko berezi bat izanzen litzateke, da. Edo esperientzia jasangarri eksklusibo bat, bakarrik nahiz lagunduta gozatzeko. Alde horretatik, turismo fisikoak bat egingen luke, du, turismo mentalarekin. Horra, akaso, enpresa ezagun baten formula berria. Totala.

Bakarren batek teknologia berrien puntako garapenean pentsatu badu, ez dabil zuzen: giza ingeniariak ez du halako artifizioen beharrik. Hain zuzen ere, kontrako norabidean joanzen litzateke, da, proposamen berritzailea. Zertarako eskaini eguneroko teknologizatuak errukigabe ezartzen digun hori? Ihes egitea da, betiere, denok gehien bilatzen

duguna. Baita zama bihurtu den teknologiatik ere.

Paradoxa berria izanzen litzateke, da, dispositibo gehien biltzen dituen mundu aurreratuak iragan denbora bateko mundua imitatzea, Internetik gabe. Pantailaz gabetutako aisialdi osasungarria eskainiko luke, du, turismo mentalak: inguru fisikoen katalogo oso bat, teknologia digitalaren interferentziarik gabe, bakoitza gogoarekin nahi duen lekura joateko. Edo bertan lasai ederrean egoteko.

Oztopo bakarra izanzen luke, du, teknologiarik gabeko teknologiak: hasieran, errenta handiagoen esku bakarrik egotea. ●

Euskadiko elikadura campusa



KIMETZ ARANA
BARATZEAINA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Elikadura Campusak urrutitik iritsitako elikagaiak eta bertako banaketa sareak izango ditu oinarri.

Parke teknologiko berria Ortuellan kokatuko da, 50 hektarea hartuko ditu eta gaur egun Basaurin dagoen Merka-Bilbao elikagai freskoen banaketa plataforma izango du guneko bihotz. Honez gainera robotika, ikerkuntza, berrikuntza eta formakuntza elikagaien sektorean bultzatzeko beste hainbat azpiegitura izango ditu.

Proiektuak 2.000 lanpostu sortuko dituela iragarri dute eta horrela ez ezker ez eskuin, ez da inolako kritika sakonik zabaldu.

Harrigarriki ordea Euskal Herriko elikaduraren gune nagusia izango den proiektuan ez dago nekazarien ahotsa zuzenki jasoko duen ordezkariarik, eta ba ote da lurrik gabeko elikadurarik?

Egitasmo honek gaurko eredia trinkotu, handitu eta egokitu egiten du baina ez die erantzuten egungo beste erronka globalei.

Proiektuaren erregai fosilekiko menpekotasuna erabatekoa da. Elikagaiak kanpotik ekartzeko autobideko sarbi-

Euskal Herriko elikaduraren gune nagusia izango den proiektuan ez dago nekazarien ahotsa zuzenki jasoko duen ordezkariarik, eta ba ote da lurrik gabeko elikadurarik?

de zuzena, portua eta trenbidearekin loturak eta Bizkaian banaketa egiteko urteko 600.000 autoren mugimendu aurreikuspenarekin.

Bertan kalitate eta osasun kontroleko laborategiak izango badira ere, badakigu urrutitik elikagai freskoak ekartzeak produktuak heltze puntua baina arinago jasotzea dakarrela, ekoizpen kimikoen gaineko kontrol zuzenik eza eta nekazal langileen baldintzen ezezagutza.

Gainera oinarrizko elikagaien garestitzearen aurrean, egitasmoak ez du prezioen gaineko kontrola berreskuratzeko bertako produkzioa handitu eta hurbileko salmenta kateak zabaltzea bilatzen.

Bilbo inguruan ia ez dago baserritarrik eta elikagaien banaketa merkatal zentroen eskuetan dago. Interesgarria litzateke jakitea zein den bertan jaten den elikagai prozesatu, industrial eta kimikoen porzentaia, horrek duen kostea eta osasunaren gaineko eragina.

Bilbotik gertu Enkarterria da nekazal lur gehien duen eskualdea. Ona litzateke hirikoentzat elikagaiak sortu, eraldatu, komertzializatu eta sektore arteko elkarlana garatuz lana sortzeko aukerak aztertzea. Ortuellako 50 hektarea horietan, posible litzateke kimikarrik gabe barazkiak sortu eta eraldatzea, eskualdeko ikastetxe eta zaharretxetako jantokitara bideratzeko?

Zenbat lanpostu sortuko lituzkete halako ekimenek? Zenbateko etekina ekarri eta noren eskuetan banatu? Horrelako ideia esperientzien batuketa litzateke niretzat Euskal Herriko elikadura campusa, jendea eta planetaren zerbitzura denoi bizi kalitate hobea ekarriko ligukeena. ●

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: | Laguntzailea:



DONOSTIA

📅 Urriak 8, larunbata, 17:00
📍 Victoria Eugenia Antzokia

LIZARRA

📅 Urriak 9, igandea, 17:00
📍 Los Llanos Kulturunea

LEHENENGO FASEA

EUSKATASUNA

EUSKAL PRESO POLITIKOAK

SAKABANAKETA AMAITZEAR, BAIMENEN BLOKEOA DATOR

Euskal gatazkak azken 60 urteetan utzi duen atal mingarrienetakoa da presoena. Denbora horretan 5.000 presotik gora egon dira Espainiako eta Frantziako estatuetako espetxeetan. Gaur egun ez dira 200era iristen, eta gehienak Euskal Herriko edo gertuko

espetxeetan daude. Euskal gizarteak hamai-ka moldez aldarrikatu du sakabanaketaren amaiera eta, sinistea kostatzen bada ere, kapitulu hori ixtear da. Eta orain zer? Ondorengo lerroetan saiatu gara azaltzen aurrera begira geratzen den panorama.

 XABIER LETONA BITERI

Lekutan dira Hertzainak musika taldeak 1991n aipatzen zituen “564 ohe huts” haiek. Asko ziren, duda barik, baina preso kopurua- ren gailurra askoz geroago etorri zen: 2008an 762 preso egon ziren, Etxerat eta EPPK-ko datuak aintzat hartuta, eta azken lau hamarkadetan gehienak euren etxeetatik ehunka kilometrora. ETAko presoak izan dira gehienak, edo haren jardunaren bueltan kondenatuak, baina horiez gain dozenaka izan dira Baltasar Garzón epaileak 2000. hamarraldiaren hasieran abiarazitako “dena da ETA” doktrinaren ondorioz espetxeratuak.

Gaur egun, 190en bat dira presoak, 180 Euskal Preso Politikoen Kolektibokoak, sei bat Tinko errepresioaren aurkako mugimenduaren bueltan antolatuta, eta gainerakoak euren bidea EPPKtik kanpo bideratzen ari direnak. 134 Euskal Herriko espetxeetan daude, 31 Espainiako ingurukoetan eta 16 Frantziari, 14 Euskal Herrira hurbilduta, eta bi urrutian. Aipatzekoa da, gainera, Frantziari espetxetik haien etxetara atera berri dituztela Jon Parot eta Jakes Esnal, 32 urte preso egon ondoren. Gainerakoan, kolektibotik kanpo edo barruan, saiatzen dira presoaren artean harreman normala izaten, “eta gehietan lortzen dugu”, diosku Antonek, duela hilabete batzuk libre dagoen presoak. Gure lekukoaren izena ez da benetakoa eta une berezi honetan nahigo du anonimatuan jarraitu.

SAKABANAKETAREN HASIERA

1977ko amnistiaren ondoren, Espainiako Estatuak nagusiki lau espetxetan zituen euskal presoak 1978an: Sorian, Madrilen, Herrera de la Manchan (Ciudad Real), eta Puerto de Santa Marían (Cádiz); eta 1987tik aurrera estatu osoan barreiatu zituzten. Azken urte hori hartzen da sakabanaketaren hasieratzat. Frantziako Estatuan ere uneren batean 100 bat preso izan ziren, han ere hamaika presondegitan barreiatuak.

Sakabanaketaren amaiera prozesuan, data esanguratsua da 2018. urtea, Espainiako Gobernuak lehendakari Pedro Sánchezek orduan iragarri baitzuen apurka euskal presoak hurbiltzen hasiko zirela. ETAk ere 2018ko maiatzean iragarri zuen erakundearen desegitea. 2019an izan ziren mugimendu esanguratsuak, baina ondoren pandemia etorri zen eta dena gelditu, 2020ko amaiera aldera arte. Mugimendurik nabarmenenak 2021etik aurrera gertatu ziren.

Urtebete honetan,
Jaurilaritzak 457 presori
eman die hirugarren
gradua –horietako
25 preso politikoak–,
hori delakoan
gizarteratzeko sistema
egokiena

Espainiako Espetxe Erakundeek ia ostitralero iragartzen zuten multzo baten Euskal Herriratzea edo hurbiltzea.

2020ko urtarrilean Pedro Sánchez Espainiako Gobernuak lehendakari hautatu zuten berriz ere, Podemos eta estatuko periferiako beste hainbat alderdiren sostenguarekin, horien artean EH Bildu. Inbestidura saioan, bi botorengatik gailendu zitzaion Sánchez eskuinari, eta koalizio abertzalearen bost diputatuak abstentzioa berebizikoa izan zen PSOEko buruzagia gobernuburu hautatzeko. Abstentzio horien negoziazioan, presoaren gaia bideratzeko konpromisoa giltzarri izan zen egungo egoerara hurbiltzeko.

URRIAK 8, JAIALDIA DONOSTIAN

Urruntze politika ez da oraindik bukatu, baina zeruertzean ikusi egiten da, eta horren lekuko Sarek urriaren 8rako Donostiako Illunben antolatutako musika jaialdi erraldoia, *Izan Bidea* dinamikari amaiera emateko. Presoen eskubideen

aldeko elkarteak horrela laburbiltzen du bere asmoa bere webgunean: “Urriaren 8an erronka honi amaiera eman ez ezik, urte luzeetan urruntze-politikaren amaieraren alde aritu diren herritar guztiak batu nahi ditugu, politika honen amaiera gauzatzen ari den honetan, berau egi bihurtzeko emaniko bultzada eskertu eta guztiona den lorpen hau guztiz gauza dadin aldarrikatzeko”.

Sakabanaketaren amaierak euskal gizarte osoari egingo dio mesede, baina batez ere kaltetuen diren presoek eta haien senideei. Eta nagusiki azken horiei, ahaideek milioika kilometro egin behar izan baitituzte deskribaezineko egoera larrietan; baina baita presoek ere, senideen kilometroak egin gabe ere, haien bizipen gorriak beren larruan sentitu dituztelako une oro.

Alaitz Aramendi orain Zaballan dago. Hamahiru urte egin zituen preso Frantziako espetxeetan, gero urtebete inguru Avilan, eta egun Araban dago. Jose Luis Aramendik, aitak, orain 53 kilometro egiten ditu Orozkotik kartzelara, lehen sarri 1.000-2.000 egiten zituen alaba Parisen, Poitiersen, Lille, Rouen edo Rennesen ikusteko. “Aldaketa itzela da, ez du zerikusirik, orain beste lasaitasun bat daukagu”, diosku Jose Luisek patxadaz. “Hala ere, ez da gurekin bakarrik gertatzen. Behin Estremeran (Madril) egin nuen topo Malagako preso sozial baten aitarekin, eta hark ere haien ezintasunak kontatu zizkidan. Desberdintasuna da gu antolatuta gaudela eta ezagutzera ematen dugula. Aramendietarrek, gainera, zorte handia izan dute babes sarearekin: “90en bat pertsona ibili gara senide eta lagunaren artean bi-




190

 dira presoak:

180 EPPK-koak, 5-6 Tinko mugimenduaren bueltakoak, eta beste 4-5 haien bidea egiten ari direnak.

Espetxeko sailkapena:

- 1. GRADUA** Gogorrena, euskal presoak horretan egon dira ia beti.
- 2. GRADUA** Egun euskal preso denak daude honetan. Espetxeko ohikoena da eta irteera baimenak eskura daitezke.
- 3. GRADUA** 28 preso. Egunez kalean eta lo espetxean, asteburua kalean.



14

 gaixo larri:

Josetxo Arizkuren, Lierni Armendariz, Mikel Arrieta, Kepa Arronategi, Gari Arruarte, Joseba Borde, Ibon Fernandez, Jose Ramon Foruria, Aitzol Gogorza, Ibon Iparragirre, Jon Gurutz Maiza, Mikel Otegi, Gotzon Telleria, Gregorio bikario.

60 bat preso, 7/2003 Legearen menpe. 40 urteko zigorrarekin eta espetxe onura barik.

762 preso izan dira gehienez (2008)

ITURRIA: Etxerat 2022ko iraila.

sitetarako izena emanda". Sakabanaketa berebizikoa izan da preso gehienen ingurune zabala, baina preso batzuen kasuetan ohiko bisitariak esku bateko atzamarrekin konta zitezkeen, eta hainbat presok eta senidek biziki sufritu dute gabezia hori.

BAIMENEN BLOKEOA

Kartzelako ohiko bizitzan biziki garrantzitsua da preso zein gradutan dagoen sailkatua, horren arabera izango baititu espetxe onura gehiago edo gutxiago, eta beraz, bizi baldintza gogorragoak edo lasaigoak. Espetxea euskal gatazkarren beste borroka esparru bat gehiago izan da hamarkadatan eta horrek ez du erraztu presoan bizitza. Euskal preso ia denak urte hauek guztietan lehen graduan egon dira, sailkapen gogorrean. Preso arriskutsuenei ezartzen zaie, eta horrek esan nahi du, besteak beste, bi patio ordu bakarrik dituztela egunean. Espetxe bateko preso gehienak, ordea, bigarren graduan daude, eta horrek jarduera askoren atek irekitzen ditu, eta garrantzitsuena, kalera ateratzeko baimenena ere bai: egun bat, bi, hiru, lau... Espetxeko Tratamendu Batzarrak erabakitzen duena.

ETAk 2011n jarduera armatuari amaiera eman zionetik EPPK-k ere beste era batera jokatu izan du eta, oro har, egindako minaren onarpena eta bide indibiduala egitea onartu du. Hau da, bidea modu kolektibo batean erabakitzen dute, baina horren gauzatzea preso bakoitzak egin behar du. Dispersioaren amaiera eta gradu aldaketak garai bertsuan hasi ziren, sakabanaketa asko aurreratu da, gradu aldaketan ere bai, baina ez horrek ekar ditzakeen hainbat ondoriotan. Urrats bakoitza ondo kostata egiten da. Lehen gradutik bigarrenera pasatzeko eskaera asko egon ziren 2018ra arte, baina gehienak ukatu egin ziren, presoak ez zegoela espetxeko bizitza arrunta egiteko prest argudiatu. Prozedura halakoa izan ohi da: lehenik 100.2 artikulua aplikatu –bizi baldintzak arintzeko artikulua–, gero bigarren gradua eman, eta ondoren espetxe hurbilketa. Lehenago ere, preso ugari egin izan dute bide hau –ezagunena *Langraitz bidea* da–, baina EPPK-ko lerroetatik aterata, ezker abertzale politikoaren arbuioarekin, eta hainbatean esparru sozial horretan bazterkeria gogorrek jasanda.

Segikoa izateagatik zigortutako Xabier Sagardoi Barañoa (Nafarroa)



2000. urtean Donostian egindako manifestazioa.

RUBEN PLAZA

Espainiako
jurisprudentziaren
arabera, buruzagien eta
egileen arteko loturak
frogatu behar dira delitu
bakoitzean, eta ez da inoiz
ETAko buruzagirik zigortu
DyJren molde horretan

presoa hiru eguneko baimenarekin ateratu zen kalera 2018ko apirilean. Zera aipatu zuen *Gara*-ko elkarrizketa batean: "Niri gutxi geratzen zitzaidan eta bertigoa eman zidan, baina ikusten nuen oraindik asko falta zaienentzat oso garrantzitsua zela urrats hori ematea. Hiru egun bakarrik ziren, baina harresirun zulo bat egitea zen". Harrez geroztik, apurka, hainbat preso ateratu dira baimenekin, baina oro har, aukera hori blokeatu egin du Auzitegi Nazionaleko Espetxe Zaintzarako Epaitegiak, eta espetxeetako tratamendu batzarrek presoek emandako 120 baimeni helegiteak jarri dizkie, horrela irteerak oztopatuta. Lehenago, lehen gradutik bigarrenera pasatzeko blokeoa eman zen, orain baimenak lortzeko eta hirugarren gradua eskuratzeko.

Bigarren graduan egonik, nagusiki lau baldintza bete behar dira baimenak eskuratzeko hasteko. Parterik edo ohararazpenik eta zigorrik ez izatea, zigorraren erdia beteta izatea, eta bizi proiektu bat aurkeztea. Funtsean, lehenengo gradutik bigarrenera pasatzeko argudioak errepikatzen ditu orain Auzitegi Nazionalak baimenak ukatzeko: presoak ez duela sentitzen benetan biktimekiko eta haren minarekiko esaten dituenak, ez duela barkamenik eskatzen edo, besteak beste, automatikoki idatzitako argudioak erabiltzen dituela, eta funtsean, ez dagoela prest erdi askatasunean bizitzeko.

HIRUGARREN GRADUAREN ZAILTASUNAK

Baimenen ostean, edozein presoren helburua hirugarren gradua da: astelehenetik ostegunera egunez kalera ateratzea –7:00etatik 23:00etara– eta ostiral, larunbata eta igandea kalean igarotzea. Hala daude une honetan 28 preso politiko. Ez da bide samurra hala ere, aurten hirugarren gradua eman zaien hamabi presori helegitea jarri baitzaie: Joseba Erostarbe, Unai Fano, Iñigo Gutierrez, Jon Crespo, Iñaki Bilbao, Gorka Martinez, Zigor Orbe, Lierni Armendariz, Aitor Herrera eta Carlos Subijanari, besteak beste, aurten eman diete hirugarren gradua, baina fiskalak helegitea jarri du eta orain Auzitegi Nazionalak zer egin erabaki behar du. Hirugarren graduan sei hilabete edo urtebete egin ondoren, ohikoena izaten da baldintzapeko askatasunean ateratzea.

Ateratzeko baimenen eta hirugarren graduaren helegite kasuetan, Auzitegi Nazionala fiskaltzaren alde egiten ari da, eta presoekin kontra. Kasu horietan bakarrik jarri daiteke babes helegitea Auzitegi Konstituzionalaren aurrean, eta oraingoz batzuk jarri badira ere, auzitegi horrek ez ditu tramitera hartu. Giltzarapo horiekin ari dira egun Auzitegi Nazionalan, baina pentsatzekoa da berandu baino lehen baimenen eta hirugarren graduaren atek irekiko direla.

Iazko irailean Eusko Jaurlaritzak espetxe eskumenak eskuratu zituen, eta horrek on egin die euskal preso politikoei ere. Joan den astean Justizia sailak emandako datuen arabera, urtebete honetan 457 presori eman diete hirugarren gradua -horietako 25 preso politikoak-, hori delakoan gizarteratzeko sistema egokiena, European ere frogatzen ari diren moduan. Beatriz Artolazabal Justizia sailburua argi mintzatu zen eskumenaren urteurren ekitaldian, eta adierazi zuen Jaurlaritzak ez duela inongo bereizketarik egingo presoekin artean, ez onurarako ez kalterako, eta presoekin egunero lanean ari diren espetxeetako tratamendu batzurrek erabakitakoan oinarrituko direla aurrerantzean ere. Oro har, ezker abertzalea pozik dago Eusko Jaurlaritzak eskumenak hartu zituenetik izandako jokaerarekin.

7/2003KO LEGEA, KORAPILO NAGUSIA

ETAk Lizarra-Garaziko su-etena hautsi zuen 2000. urtean, eta gatazka gori-gori jarri zen. Ezker abertzalearen esparru sozio-politikoa “dena da ETA” doktrinarekin hasi zen kolpatzen estatua, eta kartzela mundua are gehiago estutzeko, 7/2003 Legea plazaratu zuen: gehienezko espetxe zigor urteak 30 urtetik 40era pasatu ziren, eta gainera, lege horren ondoren zigortutako presoek ez zuten espetxe onurarik izango. Edo hobeto esanda, teoriarik bai, baina praktikan ez. Lege horren aurretik, onurak hasten ziren kontaktzen gehienezko 30 urteak aintzat hartuta, baina aurrerantzean, kontaketa ez zen hasiko 40 urteetatik, baizik eta jasotako zigor osotik. Hau da, gehienezko 40 urteko zigorrak dituzten euskal presoek askoz urte gehiagoko kondenak dituztenez, praktikan ez die ezertarako balio onurak izatea. Adibidez, 100 urteko kondena duen preso batek, 50 urte beteta behar ditu edozein baimen jasotzen hasteko.

Lege hori da orain euskal preso guztiak kaleratzeko dagoen korapilo nagusia, eta horregatik, presoekin ingurune juridikotik eta politikotik lege hori ezabatzea eskatzen da, edo bestela berrinterpretatzea, hori ere oso ohikoa baita legeen munduan, legea errealitate berrietara egokitzea. Horrez gain, onurak aztertzen dituen epailearen esku dago urteen kontaketa 30 urteetatik edo 40etatik egitea.

Duela hamaika urte utzi zuen ETAk jarduera armatua eta 2018an desegin zen. Ezker abertzaleak iraganaren kritika zorrotza egin du, borroka armatua “ez zela inoiz gertatu behar” esatera iristerraino eta, besteak beste, presoekin ez

zaie ongietorri publikorik egiten. Espainiako Estatuan, alabaina, bada pentsatzen duenik euskal presoekin oraindik jarraitu daitekeela mendekua eta xantxia politikekin, eta beraz, torloju estutzeko neurriak mahaigaineratzen.

ETA ARRISKU GEHIAGO

Azken hilabeteetan ikusi den jarduera juridikoaren arabera, bada preso gehiago ekarri dezakeen beste arrisku handi bat: Dignidad y Justicia (DyJ) biktimen elkarrekin bideratzen ari den estrategia juridikoa, zeinaren arabera ETAko buruzagiak -goi eta erdi mailetakoak- auzipetu nahi dituen, horrela epaitu gabeko ETAREN



DANI BLANCO

300 bat hilketa zigortzeko. Horretarako “egiletza mediatoa”-ren kontzeptu juridikoa erabiltzen du DyJk – kale mailan “autoretza intelektuala” moduan ere eza gutzen da-, eta irakurketa horren arabera uste da hilketa baten egiletza ez dela bakarrik ekintza exekutatu zuen pertsonarena, baizik hura agindu eta kontrolatu zuten buruzagiena ere bai.

Horietako kasuetako bat da Miguel Angel Blancoren hilketa (1997). DyJren ustez, garai hartan bederatzita pertsona ziren ETako buruzagitzan, dagoeneko jarri ditu haien aurkako kereilak, eta Auzitegi Nazionalako Manuel García-Castejón instrukzio-epaileak onartu egin du. Hori dela eta, iragan uztailean deklaratzera deitu zituen Marisol Iparragirre, Mikel Albisu, Josetxo Arizkuren eta Iñaki Gracia. Kereila hauen arabera, Blanco ez zuen hil bakarrik tiro egin zuenak, eta buruzagi horiek ere errudunak dira, haren jarduera guztiz kontrolatzen zutelako eta ez hiltzeko agindu zezaketenean, ez zutelako horrelakorik egin.

FISKALTZA DYJ-REN AURKA

Oraingoz Blancorena da molde berri honetako lehen kasua eta Albisuk eta Ipa-

Egiletza mediatoaren arabera, hilketa baten egiletza ez da bakarrik ekintza exekutatu zuen pertsonarena, baizik hura agindu eta kontrolatu zuten buruzagiena ere bai

rragirrek –azkenak telematikoki– Madrilen deklaratu zuten aipatu epailearen aurrean. Arizkuren Frantzian dago preso eta ez zuten deklaratzera ekarri, eta Iñaki Gracia auzi honetatik kanpo utzi zuten, bere kasuan auzia preskribatuta dagoelako. Deklarazioan egon zen Pedro Rubira fiskalaren arabera, ordea, DyJren kereilak kasu honetan ez du bide egiterik, Graciarenaz gain, beste akusatu kasuan ere auzi hau preskribatuta dagoelako.

Alabaina, DyJren ustez ez dago preskribatuta, oraindik ez direlako hogeit hamar urte pasatu Albisu eta Iparragirre 2004an atxilotu zituztenetik (delituek Espainian 20 urtera preskribatzen dute). Rubiraren arabera, preskripzioa hasiko litzateke kontaktan 1997tik aurrera, gertaerak izan ziren unetik bertatik. Auzitegi Nazionalako fiskal buru Jesús Alonso eta Estatuko Fiskal Nagusia izendatu berri duten Alvaro García ere iritzi horretakoa lirateke. Baita orain arteko Auzitegi Gorena eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia ere.

Egiletza mediatoaren gaiak baditu ertz gehiago ere, Espainiako Estatuko jurisprudentziaren arabera, buruzagien eta egileen arteko lotura zehatzak frogatu behar direlako delitu bakoitzean, eta orain arte ez delako inoiz ETako buruzagirik zigortu molde horretan. Hots, bakarrik buruzagi izateagatik ezin zaie leporatu buruzagitzara garaian gertatutako delitu guztiak.

Zailtasun gehiago ere badira egiletza mediatoaren bide honetan. Berez, saio hau nazioarteko zuzenbidean oinarritzen du DyJk, hain zuzen ere, humanitatearen kontrako krimenen baitan, eta



Espainiak 2004an sartu zuen bere Zigor Kodean delitu mota hau. Beraz, Espainian delitu mota hori bakarrik epaitu ahal izango litzateke data horretatik aurrera izandako gertaeretan.

SANTA POLAKO ATENTATUA

Hori ez da Miguel Angel Blancoren kasua, ezta orain urrian ikusiko den beste bat ere. Aurten bete dira 20 urte ETak Santa Polako (Alikante, Herrialde Katalanak) Guardia Zibilaren aurkako atentatua egin zuenetik, bi hildako eraginez, gizon bat eta neskatu bat. Auzia epaitua dago eta bi pertsona kondenatuta daude horregatik, baina horren kariatara, urriaren 3an sei pertsona deitu dituzte ikertu moduan: Jon Olarra, Ainhoa Mugika, Iñaki Esparza, Mikel Albisu, Marisol Iparragirre eta Ramon Sagarzazu. Eta gisa horretako beste hainbat kereila ere aurkeztu ditu jada Dyjk. Amaia Izko abokatuaren esanetan, "hildakoak izan diren eta preskribitu ez duten 198 atentatu daude oraindik argitzeke, eta kereila hauek aurrera egiten badute, dozenaka pertsona joan daitezke espetxera". Noiz eta gatazkaren ondorioz sakabanaketaren kapitulua ixten ari den, eta zailtasunak zailtasun, beste ate batzuk ere zabaltzen ari diren unean.

2013an Europako Giza Eskubideen Kontseilua Parot doktrinaz ebazten ari zela, Jorge Fernández Díaz Espainiako Barne ministroak argi esan zuen atzera botatzen bazuten, Espainiako agintariak bazutela "ingeniaritza juridikorako" tarterik. Ez litzateke Espainiak ingeniaritza juridikoa praktikatu lukeen lehen aldia –"dena da ETA", Iñaki de Juana eta Antton Troitiño zenaren kasuak, espetxe legedia...–, eta azaltzen ari garena ikusita, azkena ere ez. Uztailean, Blancoren kasuan fiskaltzak eta defentsak bat egin zuten auziaren balorazioan, eta hala ere, fiskaltzak aurrerantzean erakutsitako jarrerari eutsita ere, ia seguru da kasuok epaiketara iritsiko direla, DyJ akusazio partikular gisa aurkezten ari delako, eta horrekin ahozko auzira iristea posible delako, fiskaltzak kereilaren aurkako jarrera izan arren.

"ESPERANTZARA KONDENATUAK"

Amaiur Iragi bilbotarrak 19 urte ditu, Gasteizen ari da ikasten eta inoiz ez du kalean ikusi Zaballan dagoen Harriet Iragi, aita. 46 urte ditu azken horrek eta 22 daramatza preso. Valdemoron urtebete, Córdobaan bederatzi eta Castellónen hamar maika pasatu ondoren, Araban da egun,

Zubietan, erraustegi ondoan, espetxe berria egiten ari dira.



DANI BLANCO

"Aldaketa kristorena izan da! Azken bi urteetan bizipen eta emozio berri asko izan ditugu, eta nolabait, hasi gara tunelaren amaiera ikusten"

Amaiur Iragi

Harriet Iragi presoaren alaba

Bilbotik 75 minutura. Eguna kartzelako ekonomatuan lanean ematen du batez ere, eta denbora librean antzerkia, zermika eta kirolari eskaintzen die, besteak beste. "Bisita asko ditu –dio Amaiurrek–, ama eta biok goaz, familia osoa, lagunak... Bai, aitak preso jarraitzen du oraindik, baina aldaketa kristorena izan da! Azken bi urteetan bizipen eta emozio berri asko izan ditugu, eta nolabait, hasi gara tunelaren amaiera ikusten".

Antonek ere emozioak eta sentimenduak dantzan ditu oraindik, kalera atera berriak diren preso gehienei gertatzen zaien moduan. Urte luzez espetxean egon ondoren, libre da orain eta Iruñeko Takonera parkeko aulki batean ari gara berriketan, bat sentsazio berriak askatzen eta bestea irensten.

Azken hilabeteetako une asko dira goangarriak Antonentzat, baina horien artean indarrez gogoratzen du hirugarren gradua iragarri ziotenekoa: "Ni erdi lotsatua, zer egin jakin gabe ia, eta ki-deak sekulako besarkadak eta animoak ematen. Egiatzki, presook etengabe egoten gara elkarri animoak ematen urrats berriak egiteko". Eta kalean zer? "Eten-gabe egokitzen zoaz, baina hasieran oso bitxia da, hirugarren graduan etengabe gogorarazi behar diozu zure buruari oraindik espetxean zaudela. Espetxea izan da gure 'konfort mundua', han seguru sentitzen gara eta kalean zaugarri. Baina Harreratik eta beste erakunde batzuetatik sekulako laguntza jasotzen ari gara. Eta gero dago maitasuna, sekulako maitasuna sentitzen dugu gure ingurune zabalean, eta horrek asko laguntzen du. Presoarentzat, azken finean, egon barruan edo atera berria izan, mundu afektiboa oso-osoa garrantzitsua da".

Etxera bueltan Alde Zaharrerantz, Iruñeko espetxe zaharra egon zen belardi ginetik igaro gara. Jadanik ez da espetxerik han, hiriaren kanpoaldera atera zuten berria duela hamarkada bat. Donostian ere, Martutene itxi eta Zubietako erraustegiaren ondoan eraikitzen ari dira espetxe berria. Kartzela zaharraren orubea Intsumisioaren parkea da orain Iruñean, baina ondoan da ere intsumisio haiek espetxera bidali zituen Nafarroako Lurralde Auzitegia. Edozein modutan, hiriko harresietan txango eder bat emateko pasabide ere izan liteke Hiriburu buruzagia bisitatu nahi duen edozein preso ohirentzat. ●

Glosa feminista posible da

Munduko hainbat tokitan tradizio luzeko jarduna da ahozko inprobisazioa eta, usadioa gaurkotzeko prozesuetan, tentsioak sortzen dira. Herrialde Katalanetako glosatzaile emakumeak antolatzen ari dira inprobisazioaren joko-arauak gorputz eta ahots ez-hegemonikoetara egokitzen. Parte diren mugimendua eraldatu nahi dute, mugimenduaren parte izateari utzi gabe. Berta Llos eta Aurora Brullet glosatzaileekin hitz egin dugu.

 UXUE ALBERDI

 **Pikara**
magazine

Artikulu hau *Pikara magazine*-k argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

Katalanez egiten den kantu inprobisatua da glosa. Tradizioa galteaz egon zen harik eta 2000. urtearen bueltan zenbait eragilek berreskurapen-lanari ekin zioten arte. Territorio bakoitzean ezagutzen ziren *tonadak* identifikatu eta aldaera guztiak emari berean bateratu zituzten: Menorca eta Mallorcako glosa, Montanissellgo *perdiuetak*, Lleidako *garrotinak*, Ebroko jotak, l'Empordàko *nyacresak* eta *patacadesak*, irltako *romanchosak*, bateko eta besteko *corrandeak*... "Glosa" generikoak biltzen du orain katalanezko kantu inprobisatu oro.

BEGI ASKO GAINEAN

Mende hasieran ekin zioten Kataluniako eskoletan kantu inprobisatua erakusteari ere, ahozkotasuna lantzeko onuragarria izan zitekeelakoan. Irakasle baten eskutik izan zuen glosaren berri Berta Llosek (Torroella de Montgrí, 1994): "Oso zalea zen, inprobisatu ere egiten zuen, eta haren eskutik zaletu ginen gazetxo talde bat". Ikasleen arteko hainbat topaketatan parte hartu zuten eta, batxilergoa amaitutakoan, irakasleak Espollara eramane zituen, "*benetako* glosatzaileak elkartzen diren tokira". Espollan kantatu zuten lehen gazetxoak izan ziren, "baina talde hartatik neuk baka-

rrik irauin nuen, gainerakoek utzi egin zuten". Hurrengo urtean ere itzuli zen Llos Espollara, eta orduko hartan bakarrik kantatu zuen: "Nor da hain ondo inprobisatzen duen neska gazte hori?", zabaldu zen hotsa.

Promesa gaztearen etiketa bizkarrean, miresmenak baldintzatuta bizi zela aitortzen du: "Nire erreferente handienekin inprobisatzen ari nintzen, maila eman beharra neukan!". Presioak gain hartu zion, ordea, "lehertu eta ihes egin nuen glosatik, eta Bartzelonara joan nintzen bizitzera". Handik urte batzuetara itzuli zen, helduago eta diskurtso feminista barneratuta. Beraren gaineko irakurketa aldatu egin zela ohartu zen, baita ematen zizkieten aholkuak ere: "Ordura arte teknika hobetu behar nuela esaten zidaten, oso ona izan nintekeela. Teknika hobetuta itzuli nintzenean, berriz, hitzak neurtu behar nituela gaztigatu zidaten, kontuz ibiltzeko mezuekin, 'feminismoaz bakarrik' kantatzen banuen ez nuela sekula lehiaketa irabaziko".

TRADIZIOAN ARROTZ

Bestelakoa izan da Aurora Brullet-en (Sant Quirze del Vallés, 1989) ibilbidea, militantzia sozialean ezagutu zuen glosa: "Herrian bagenuen CSA bat, zentro

sozial autogestionatu bat, eta bertako hiru kide oso zaleak ziren. Sabadellgo *garrotin*-lehiaketan parte hartzen zuten eta CSAn ere programatzen genituen *glosatsak*. Barran, muntaian edo garbiketari ari nintzela ikusi nuen lehen aldiz jendea inprobisatzen: 30 edo 40 lagun kantuz solasean. Liluratu egin ninduen komunikatzeko modu hark. Nik ez dut glosa tradizioetik ezagutu, niretzat ez da ohiturei eta sustrai luzeko praktikari lotuta egon Menorcara iritsi nintzen arte".

Katalunian jaio zen arren, bere burua glosatzaile menorcartzat du Brulletek, han bizi baita hogeitau urte zituenetik, eta bertan sozializatu baita glosatzaile gisa: "Talka handia izan zen Menorcako glosaren mundura sartzea, hemen tradizioan oso erroturiko jarduna da, bertako nekazal bizimoduari lotua, antzinako erreferenteek pisu handia dute. Glosatzaileari ahotsa erabiltzeko modu bat, bizimodu jakin bat eta imaginario oso bat suposatzen zaizkio. Irudi hori, 80ko hamarkadara arte, erabat zegoen landa eremuari eta taberna-giroari lotua. Glosatzailea gizona zen, erretzailea, edalea, gorputz sendokoa, azal zaildukoa, bizarduna... Ideia esentzialista hori, neurri batean, bizirik dago oraindik. Menorcako *glosatsetan* asko errepikatzen da: 'gauza bat da glosak egiten jakitea, eta



Berta Llos glosatzailea.
XEVI VILAREGUT

beste bat glosatzaile izatea'. Askoren-tzat, glosak egiten dakien feminista da Brullet.

Bertaren ustez, Auroraren kasuan, nabarmena da feminista izateagatik jasaten duen zigorra: "Nik ez dut sentitzen Katalunian nire mezuek saioak 'kentzen' dizkidatenik. Hemen itxura batean aurrerakoiagoa da dena, baina itxura batean bakarrik; Mireia Domènechek lehengoan esan zuen bezala, Katalunian 'biolentzia sinpatikoan' garaian gaude".

IKASTEKO GOSEA

Aurora Brulletek eta Berta Llosek faltan sentitu izan dituzte glosa-formazio jarraituak, autodidaktak dira hein handi batean: "Eskolan oso modu informalean aritzen ginen, elkarrekin kantuan hasi eta jolas egiten genuen. Ez genekien nola ikasten zen, ez genekien ikas zitekeenik", dio Llosek, "16 urterekin

“Teknika hobetuta itzuli nintzenean, hitzak neurtu behar nituela gaztigatu zidaten, kontuz ibiltzeko mezuekin, 'feminismoaz bakarrik' kantatzen banuen ez nuela sekula lehiaketa irabaziko”

Berta Llos

hasi eta 22 urtera arte, Espollako udako astebeteko eskola salbu, inoiz ez nuen glosatzen 'ikasi'". Benetako emanaldi batean kantatzeko deitu ziotenean sentitu

zuen eskolak hartzeko premia: "Sekula ez nuen neure burua benetako glosatzai-letzat izan!".

Brulletek ere sentitu izan du formazio egarria: "Menorcan ez nuen inprobisatzeko espazio informalek aurkitu. Sant Quirzen zer edo zer kantatua nintzen ausarkeriaz, intuiziotik. Baina hemen ez zen halako gunerik eta pentsatzen nuen: 'oholtzara igo behar badut, ikasi egin beharko dut!'. Baina ez dago formazio jarraitua jasotzeko aukerarik".

Menorcan gaur egun inprobisatzen duten glosatzaile askok duela bi hamarkada ikasi zuten Miquel Ametller maisuarekin. Brulletek argiak eta itzalak sumatzen ditu transmisio-kate horretan: "Alde batetik, miresmen handia sentitzen dut Ametllerek egin zuen lanarekiko; hamarkada batean zehar hainbat ikastaro eta inprobisatzeko espazio sortu zituen. Baina formazio hori jaso

zuten guztiek haren eredura ikasi zuten. Berak erabakitzen zuen nor zen ohol-tzara igotzeko gai eta nor ez. Ez zegoen gizon honen eskuetatik igarotzen ez zen oholtzarik". Ametllerrekin ikasi zutenek formazio jarraitua jasotzeko aukera izan zuten eta, Brulleten iritziz, oholztetarako "balioztatze txartela" lortu zuten, oraindik ere pisua duena: "Une historiko hark markatu zuen balioztatze soziala".

"BADAQIELA USTE DUENAK...

... ezin du jakin gehiago", kantatu zuen Maialen Lujanbio bertsolariak. Espollako udako eskola da glosaren topagune eta formakuntza-gune nagusia. Urtero, hainbat ikastaro, tailer eta erakustaldi egiten dituzte bertan, baita txapelketa bat ere. Aurten, glosa munduko emakumeen Nyàmeres taldearen aurkezpena egiteko ere baliatu dute.

Bost gizonen eta 30 emakumeen eman zuten izena eskolan. Diferentzia horren zergatiaz galdetuta, "gizonen dagoeneko aski formatuta daudela uste dute", diote, "kontrara, emakume gehienok sentitzen dugu oraindik asko daukagula ikasteko". Eskolan hiru maila bereizten dira: hasiberriena, erdibidekoa eta adituena, eta norberak kokatzen du bere burua nahi duen tokian. "Kurioski, bost gizonetatik batek ere ez zuen bere burua hasiberrien taldean kokatu. Baziren bi lehenbiziko urtea zutenak, eta haietako batek zuzenean eman zuen izena adituen taldean. Nik sei urte behar izan ditut talde horretara igarotzeko!", dio Berta Llosek, "lehenbiziko urtea zuten emakume guztiek eman zuten izena mailarik apalenean. Hasiberrien taldean den-denak emakumeak ziren". Irakaslerik gehienak gizonak ziren, glosaren munduan sona handiko erreferenteak.

Nyàmeresen taldearen aurkezpena ez zegoen programa ofizialaren barruan: "Sobremesa modura egin genuen, ez eskolaren barruan klase edo lantegi modura, apendiz bat zen". Adituen mailako hiru irakasle gizonetako bat bera ere ez zen bertan izan: "Bat desgertu egin zen, besteak bestondoa zuen eta hirugarrena, gaur egungo 'glosaren aita', inguruan ibili zen haurra zaintzen, dena entzuten baina parte hartu gabe", penatzen da Llos, "saioa amaitu genuenean, ordea, niregana etorri eta txantxa antzean esan zidan, 'tentuz Nyàmeresen kontuarekin, e? Ea noraino joaten zareten, glosaren mundua ezegonkortzeko ere!'".

“ Herrian bagenuen zentro sozial autogestionatu bat. Barran, muntaian edo garbiketari nintzela ikusi nuen lehen aldiz jendea inprobisatzen: hogeita hamar edo berrogei lagun kantuz solasean. Liluratu egin ninduen komunikatzeko modu hark”

Aurora Brullet

GIZONEK GAUZAK AZALTZEN DIZKIDATE

Nyàmeresen bilkuran taldekideek espazio seguruagoak sortzeko jarraibide batzuk aurkeztu zituzten: "Hitza eta espazioa banatzeko estrategia adostuak, bolumena eta tonua zaintzeari buruzkoak... Arrakasta handia izan zuen proposamenak". Baina Ane Labakak "Gure aitak" artikuluan edo Rebecca Solnitik *Men Explain Things to Me* liburuan nola, Llosek tutoretzarekin egin zuten topo: "Gure bilera amaitu ostean tailerra geneukan ospe handiko maisuarekin eta, hasi orduko, gure proposamenak zuen intentzio feministari gor egin eta esan zuen: 'oso ongi egon da proposamena, glosadaren kudeaketa deitzen zaio horri'. Zeharka adierazi zigun ez genuela ezer berririk ekarri". Gertatu izan zaie gehiagotan ere: "Nyàmeres taldean beste era bateko glosa posible egiteko zernolako espazioak sor ditzakegun pentsatzen ari gara, testuinguru aldatuta askoz hobeak izango ginatekeela uste dugulako. Hausnarketa hori gizonekin konpartitzen dugunean oker gabiltzala esaten digute, edozein gai eta testuingurutarra egokitzen asmatu behar dugula, beraiei oso gai diferenteak jartzen dizkietela eta nahi duten lekura eramaten dituztela".

Espollako *Glosa de vins* ekitaldiaren aurretik ere, oholtzara igotzeko errepato handia zuten hainbat emakumeen ahalduntzea kudeatzen ari zirela,

aholkua eman zieten: "Denbora luzeegia eskaintzen diozue kontu emozionalari, jakin behar duzue bereizten noiz den emozioentzako eta noiz oholtzara gaineakoan zentratzeko unea". Aurora Brulletek ere maiz sentitu izan du gizonen zalantzan jartzen dutela: "Askotan adierazi didate feminismoa eta aspektu emozionalak 'ihesbidetzat' edo 'distrakzio teknikatzat' hartzen ditugula".

NORBERAREN BURUAREN MITOA

Autoritatea bakarrik ez, egiletza aitor diezaieten ere kostatzen zaie maiz. Norberaren irudi publikoa sortzeko baldintzez mintzo da Brullet: "Plazaz plaza lortzen da balioztatze soziala, baserrietako glosat pribatuetan edo tabernetako saioetan, ahoz aho. Plaza txiki horietarako sarbidea ez da erraza, eta hor aritu beharra duzu gero oholztetara dei zaitzaten, denok ez dugu 'geure buruaren mitoa' sortzeko aukera bera". Gainera, emakume glosatzaileen irudia, sarri, gizon glosatzaileen osagarri gisa eraiki izan dela dio: "Pilar Pons glosatzailearen irudia, adibidez, hala interpretatzen dut nik. Amatler maisuaren eskuin eskua bilakatu zen, baina Pilarren mitoa Amantlerren identitatetik abiatuta eraiki zela uste dut, haren osagarri modura. Beti elkarrekin joaten ziren eta horrek ospea eman zion Pilarri, baina bere mitoa ez zen independentea, emakume moduan irakurria zela uste dut, ez inprobisatzaile oso gisa". Logika horrek oraindik ere badirauela uste du: "Askotan aurkezten gaituzte saioko emakume modura. Emakumearena egitea dagokigu, gure fisikoari, ahots finari, janzkerari edo amatasun edo ez-amatasunari kantatutakoei erantzutea, eta ez badugu emakumearena egiten, ez digute hainbeste deitzen, glosadore gizon zenbaitentzat deserosoak garelako, ez dakitelako nondik aterako garen, jokoan jartzen dugulako beren glosatzaile-prestigia".

Egiletza eraikitzea kosta eta, hori gutxi balitz bezala, feminista etiketarekin mugatzen dituztela sentitzen dute: "Glosan, borroka sozialei eta gutxiengo zapalduen mezuei tokia egitea da nire helburuetako bat, azken boladan asko kantatu dut LGTBI kolektiboari buruz, zeharkatzen naudelako, baina batzuetan oportunitatea leporatzen didatela sentitzen dut", deitoratzen du Llosek, "gainera, bazterra seinatu eta bazterraz bakarrik kantarazten dizute, eta horrek ez dit beste gauza batzuetan pentsatzen uzten". LGTBI kolektiboari edo femi-



Emakume glosatzaileak oholtzan, Espolla herrian egiten den Glosa de vins ekitaldian.

nismoari buruzko azaleko diskurtsoek ondo funtzionatzen dutela dio, baina sakonera joanez gero ez dutela *enkajatz*en. Bat dator Brullet: “Genero desberdinkeria behin eta berriz ukatzen da glosaren munduan, zuzenean ez bada zeharka, eta arazo individual gisa hartzen da. Glosatzaile askok esan edo adierazi didate joko-arauak onartu behar ditudala, ez saiatzeko jokoa aldatzen”.

PASTELA NOLA BANATU

Katalunian, teorian, *glosats* guztiak Cor de Carxofa elkartetik igarotzen dira, eta elkarteak da glosatzaileak proposatzen dituenak; Menorcan ere, Soca de Mots elkarteak erabakitzen du nor nora bidali: “Zentralizazio hori badago, elkarteek indar hori dute, nahiz eta zuzeneko deiak ere izaten diren. Ez dago kalitatearen araberako zerrenda ofizialik, baina badago hierarkia modu bat, eta tokiaren eta formatuaren arabera egokiagozat jotzen dira glosatzaile batzuk besteak baino”, aipatzen du Llosek. “*Temazo* bat da nola erabakitzen den saio bakoitzera nor joango den”, dio Brulletek, “bizpahiru pertsonak erabakitzen dute Menorcan, eta beren ikuspegiaren araberakoa da plazetan kantatzeko duzun aukera”.

Gustua problematizatu beharraz ere

“Bazterra seinalatu eta bazterraz bakarrik kantarazten dizute, eta horrek ez dit beste gauza batzuetan pentsatzen uzten”

Berta Llos

mintzo dira: “Espollako txapelketan glosadore bat oso ongi aritu zen edukietan, estiloan eta teknikan; inor baino hobeto nire ustez, baina ‘ez dauka oholtzaririk’ aipatu zuten askok, ‘ez du espektakularirik ematen, eta hori publikoari ez zaio gustatzen’. Nola dakizu publikoari zer gustatzen zaion probarik egin ezean?”, galdetzen du Berta Llosek. “Tamalez, ertza –generoari, territorioari, estiloari edo ideologiari dagokiona– desafiotsat edo akastzat hartzen da”, dio Brulletek.

NYÀMERES, LURPEAN HAZTEN ARI DEN TUBERKULUA

Gai hauek eta beste hainbat lantzeko sortu zuten hainbat emakume glosatzailek Nyàmeres taldea 2022ko urtarilean. Askotariko ibilbideak eta diskurtsoak dituzten emakumeak biltzen dira bertan, eta hasiak dira hainbat esparrutan lanean. Batzuek ikerketa eta errekupeazio lana lehenesten dute, “emakumeek kantatu ohi zituzten melodiak arakatu, andre historikoak errekupeatu...”; beste batzuek prozesu feminista sakona jarri nahi lukete abian, emakumearen ikuspegi esentzialistatik harago. Gauza batean bat datoz: “Nyàmeres ongizate handia sortzen ari da”. Hala dio Llosek: “Niri glosak aldi berean eragiten dizkit ongizatea eta ondoeza, tentsio handia, presioa eta kuestionamendua sentitzen ditudalako. Horregatik, asko eskertu dut ongizatea sentitzea. Sentipen orokorra dela uste dut eta horregatik hurbiltzen dela gero eta kide gehiago”. Lurpean pixkanaka hazten ari da eraldaketaren tuberkulua: “Elkar ezagutzea oso garrantzitsua dela ohartu gara, ondoez handia sortzen digu emakumeen arteko lehiak, eta hori desaktibatzeke ezinbestekoa da elkar hartzea”. ●

Biziberritu proiektua

“Enpresetako soberakinei bizi berria eman nahi diegu, hezkuntza mundura ekarriz”

Biziberritu proiektuak hurrek hain ohikoak ez dituzten materialekin jolastea proposatzen du: enpresetan sortzen diren hondakinak. Larraitz Esnaola Illarretak eta Alex Barandiaran Arteagak daramate aurrera, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikertzaileek. 2021ean Puntu Soziala saria jaso zuen Biziberrituk, gizartean eragin positiboa duen egitasmoa izateagatik.

 MADDI VIANA ZUBIMENDI  DANI BLANCO

“Biziberritu” jarri diozue izena proiektuari, zer adierazi nahi duzue?

LARRAITZ ESNAOLA: Enpresetako soberakinei bizi berri bat eman nahi genien, horretarako gure esparrura, hezkuntza mundura ekarriz. Eskoletako hezitzaileen, profesionalen eta haurren eskuetan jarri dugu materiala: alde batetik, bizi berri bat ematen diogu bestela zaborretara doanari; eta bestetik, eskoletan dagoen materiala berritu edo orain arte erabili izan dena zalantzan jartzen dugu.

ALEX BARANDIARAN: Ikusi dugu material hori bizirik dagoela eta aukera asko ematen dituela. Gu asko oinarritzen gara haurren esplorazioan eta esperimentazioan, haurrak berak deskubritu dezala zein den bere errealitatea eta ingurukoarena. Gure oinarria deskubrimenduan dago, baina materiala egituratua badago, ez du deskubritzeko ematen. Egituratuta

ez egotea askoz ere interesgarriagoa da guretzat: haurrek euren arteko harremanak eta ezaugarriak deskubritu ditzakete, eta irudimena lantzeko eta jolaserako erabili. Materialak bizi berezi bat izango du haur bakoitzaren eskuetan; desberdina izango da.

Zein soberakinekin egiten duzue lan? Nola lortzen dituzue?

L. ESNAOLA: Enpresek ematen dizkigute. Badaude egituratu gabeko beste material batzuk ikastetxeetan, haurrek erabiltzeko modukoak, baina askotan ez dira hain eskuragarri egoten, industrialak direlako edo beste modu batean eginda daudelako.


A. BARANDIARAN: Kaxak, kortxoak, komuneko paper tutuak...

L. ESNAOLA: Esperientzia pilotu bat egin genuen aurreko ikasturtean, ikusi bai-

kenuen hainbat ikastetxetan horretan zebiltzala, baina ez guk eskaintzen ditugun materialekin. Horregatik, harrituta gelditzen dira gure proiektuko materiala lehen aldiz ikusten dutenean. Adibidez, enpresa batek xiringak eman zizkigun, eta guk lotzen ditugu likidoa sartu edo ateratzearekin, agian haizearekin ere bai... baina haurren jolasa hortik harago doa. Prozesuan zehar, hezitzaileok espero ez genituen gauza asko ikusi ditugu: guk xiringari funtzio bat ematen diogu, baina jolasean beste gauza batzuk irudikatu dituzte. Gauza bera gertatu da bizikleten gurpilekin edo koadroekin.

Lehenik enprekin jartzen zarete harremanetan. Eta behin materiala lortuta, zein dira hurrengo pausak?

L. ESNAOLA: Mondragon Taldeko kooperatibatik kanpoko hainbat enpresari



Larraitz Esnaola eta Alex Barandiaran dira Biziberritu proiektuaren sortzaileak. Enpresetako hondakinei beste erabilera bat emateaz gain, ikastetxeetan dagoena zalantzan jarri eta berritu nahi dute, haurrak esperimentazioan sakondu dezan.



“Espazio bat prestatzen dugu, materialak modu erakargarrian jarritz. Eta ondoren hurrei modu librean esperimentatzen uzten zaie. Hori guztia argazkiz, bideoz eta idatziz jasotzen dute ikastetxeetan eta jasotako informazioa partekatzen dute gurekin”.

luzatu genion deialdia, eta guztira bostek azaldu zuten interesa: Irizar, Ternua, Fagor Electrónica, Orbea eta KiroGrifols. Eskoletara ere jo genuen, eta azkenean zortzi izan dira parte hartzera animatu direnak. Enprekin gertatu bezala, badaude interesa azaldu duten eskola gehiago, baina aktiboki parte hartzeko zailtasuna adierazi digute, eta zortzi horiekin hasi gara.

A. BARANDIARAN: Planteatu duguna da eskola bakoitzak materiala hartu eta horiekin proposamen bat egitea hurrei. Proposamen erakargarri bat, haien arreta deitzeko eta materialarekin esperimentatu dezaten. Beraiek gertatzen dena dokumentatzen dute, eta ondoren berriro elkartzen gara, hurrek egindako horri buruz hausnartu eta ondorioak ateratzeko.

Zein adinetako hurrekin zabilzate? Beste adin edo eremu batzuetara zabaldu daiteke, adibidez aisialdira?

L. ESNAOLA: Haur eskolatik hasi eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailara

“Hezitzaileok espero ez genituen gauza asko ikusi ditugu: guk xiringari funtzio bat ematen diogu, baina hurrek beste gauza batzuk irudikatzen dituzte”

Larraitz Esnaola

artekoek hartu dute parte. Baina pentsatu dugu aisialdi eta jubilatutaldeen erlan egitea, hezkuntza formala deituriko horretatik kanpo.

A. BARANDIARAN: Hau proiektu komu-

nitario bat dela ikusten dugu, adar asko izan ditzakeena; artistekin ere agian egin dezakegu zerbait...

Zuek dinamikak prestatzen dituzue. Nolakoak dira?

A. BARANDIARAN: Espazio bat prestatzen dugu, materialak modu erakargarrian jarritz. Eta ondoren hurrei modu librean esperimentatzen uzten zaie. Hori guztia argazkiz, bideoz eta idatziz jasotzen dute ikastetxeetan eta jasotako informazioa partekatzen dute gurekin: haur batek alderdi berria azaleratu duela, besteak ez duela halakorik egin, hark hegazkina eraiki duela... Materialak modu batera daude ordenatuak eta hegazkin hori haurraren buruan dago, baina guk agian hori ez dugu ikusten.

L. ESNAOLA: Helburua ez da hegazkin bat sortzea, noski, haurrak momentu horretan material horrekin barrutik ateratzen zaiona egitea baizik. Agian beste batek beste zerbait sortzen du, edo esperimentatzen aritzen da gauza hau besteen barruan sartuz...



IDO PHOTOGRAPHY

“Ikusi dugu material hori bizirik dagoela. Gu asko oinarrizten gara esperimentazioan, haurrak berak deskubritu dezala errealitatea”

Alex Barandiaran

Liburu bat idatzi duzue: *Esperimentazioan sakonduz biziberritu, Hik Hasik argitaratua.*

A. BARANDIARAN: Pentsatu genuen ideia ona zela ikastetxeei proposamenak egitea eta islatzea zein aukera dauden material horiekin esperimentatzeko, hori baita proiektu honen ardatzetako bat. Haurrak zer deskubritu dezake honekin? Eta beste honekin?

L. ESNAOLA: Ikuspegi hori lantzeko proposamenak dira, baina helburua ez da proposamen horietara iristea, esperimentatzeko garaian inspirazio bezala erabiltzea baizik. Beste proposamen batzuk egiteko aukera ere ematen dugu liburuan, eta materialen zerrenda luze bat ere badakar, norbe-

rak inguruan duen horretatik sortzeko, desberdina delako leku bakoitzean lortu daitekeena.

A. BARANDIARAN: Kultura hau zabaldu nahi genuen ikastetxeetan, badakigulako zaila dela. Lana eskatzen du. Lehenik materiala eskuratu, gero toki batean jarri, dokumentatu, dokumentazio hori beste irakasleekin partekatu, hortik hausnartu... Horrek denbora behar du, eta orain arteko bidea ez da hori izan. Fitxak eta fitxak eta fitxak eman izan zaizkio haurrari normalean.

L. ESNAOLA: Guk haurrari eskaintzen dioguna ondo pentsaturik dago, zer eta nola aurkeztu erabakitzeko buelta asko ematen ditugu aurretik. Ez dugu aurkitzen dugun lehenengo materiala eskaintzen... hori ere batzuetan egin daiteke, baina interesgarriena aurrelanketa da, eta ondoren ikustea zer gertatu den. Askotan emaitza ez delako espero duzuna: adin desberdineko taldeak egon edo ez, haur kopurua handiagoa edo txikiagoa izan, horien arabera asko aldatzen da.

Zein dira hurrengo pausoak?

A. BARANDIARAN: Zabaldtu egin nahi dugu, bai hemen bailaran [Debagoienan], baita besteetan ere, adibidez Zumaiako aldean.

L. ESNAOLA: Pausoz pauso nahiko genuke zabaldtu, Gipuzkoan hasi gara baina iruditzen zaigu oso proiektu interesgarria dela Euskal Herriko beste tokietan lantzeko. ●



Puntu Soziala sariaren bultzada

Puntu Soziala saria 2021ean irabazi zuen Biziberritu proiektuak. Gizartean eragin positiboa duten egitasmoak indartzeko asmoz sortu zuen TaPuntu kooperatibak eta bi urtean behin antolatzen du. PuntuEUS fundazioa, ARGIA eta Ido Photography kooperatiba laguntzaile dira, zabalitze lanetan. Ondoko argazkiak, adibidez, Zumaiako Zumaiena ikastetxean atera zituzten, eta artikulua ere interkooperazio horren emaitza da.

Biziberrituk hainbat arlotan jaso du laguntza: “Proiektuarekin hasi berriak ginen eta behar batzuk geneuzkan; pentsatu genuen Puntu Sozialak bultzada bat eman ziezagukeela eta horregatik animatu ginen aurkeztera. Saria lortzea oso lagungarria izan da: irudia, logoa, marka eta tipografiak, sare sozialetako erabilera, webgunea... egin ditugu beraiekin”, azaldu du Larraitx Esnaolak. Bideo bat egiteko asmoa ere badute, materialak enpresetatik ateratzean eskoletara iristen deneraino egiten duen ibilbidea erakusteko: “Azken batean, sariak proiektuari bizia eman diola esan dezakegu”.

Bidean asko ikasi dutela dio Alex Barandiaranek: “Arlo horiek ez dira gure *fuertea*. Gure lana gehiago da ideia buruan edukitzea, eta beste zatia beraiek egin dute. Elkarlan bat izan da”.


Zer ikasi eta nola, badago alde

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Irungo Toki Alai ikastetxean lau-pabost urte daramatzate lanean ikasgaietan feminismoa zehar-lerro bilakatu nahirik. Horretan dabiltza Beatriz Rubio eta Laura González irakasleak Bigarren Hezkuntzako ikasleekin, hezikidetzan arloan. Hiru ardatz nagusi dituzte: sexu eta aukera berdintasuna baliioestea eta errespetatzea, indarkeria eta edozein motatako aurreiritzi eta jokabide sexistei aurre egitea, eta feminismoaren teoria. “Prozesu bat da. Ezeren aurretik, erreferenteak eman behar dizkiegu ikasleei, emakume horiek existitu eta existitzen direla erakutsi; generoaren eraikuntza eta honek dituen ondorioak ulertu behar dituzte; eta sexismoaren eta indarkeriaren aurkako neurriak landu beharra daukagu beraiekin”, azaldu digu Rubiok.

Historian esanguratsua izan diren emakumeak nor izan ziren lantzen dute ikasgai desberdinetan: gizartean, zientzietan, hizkuntzetan... Eta generoaren eraikuntzak dituen ondorioak ezagutzeko adibide errealek jotzen dute. Adibidez, 3. mailako ikasleek estatistikara lehen hurbilpena egiteko bildu dituzte ikastetxeko ikasleen eta beren familien datuak (nork egiten ditu etxeko lanak, aisialdian zer egiten dugu, ze lanpostu betetzen dituzte etxekoek, ze soldata jasotzen dute...), inkesta bidez, eta horiek irakurri eta interpretatzen ikasi dute, aldi berean gizonen eta emakumeen arteko arrakalak gertutik ezagutu.

Arlo desberdinetako emakumeen hiztaldia izaten dituzte ikasgelan. Ezagutu dituzte, besteak beste, Ane Irazabal eta Arantxi Padilla kazetariak, “La Basu” musikaria, Maud Combarieu, Aiora Otamendi, Ania Perez edo Amaiur Erkizia kirolariak. Hitz egiten dute bertako egoeraz eta nazioartekoaz –feminismoaren ikuspegitik beti–, ikasle neskak eramaten dituzte unibertsitateko zientzietako jardunaldietara, emakumezko ingeniari eta zientzialariak ezagutu ditzaten, mural bat



Beatriz Rubio eta Laura González, Toki Alai ikastetxeko dekalogo feministaren ondoan

egin dute ikastetxeko aisialdi eremuan... Eta askoz gehiago dira ikasgela barruan zein kanpoan egiten ari diren lanak, hemen denak zerrendatzeko tarterik ez badugu ere.

Total, hau dena zertara datorren ARGIAren barrenez hitz egiten dugun txoko honetan? Ba Beatriz Rubioren eta Estitxu Eizagirreraren artean egindako *Borroka, maitasun eta traizio istorioak* podcasta zintzilikatu berri delako argia. eus-en (segidako QR kodean entzungai), justuki feminismoaren historian eza-gunak diren hainbat autoreren bizitzari buruz apur bat gehiago jakiten eta egungo feminismoen oinarriak hobeto ulertzen lagunduko diguna. ●



ARGIAren atxikimendua

Euskara ofiziala Nafarroa osoan

1986ko Euskararen Legea aldatu eta Nafarroa osoan euskara ofizial egiteko eskaera zuzena egin dio Euskararen Nafar Kontseiluak Nafarroako Gobernuari, irailaren 16an onarturiko adierazpenean. ARGIAk bat egin du adierazpenarekin, IKA euskaltegiak abiarazitako atxikimendu kanpainari erantzunez.


Euskararen Nafar Kontseilua erakunde publiko aholku-emailea da; bere irizpenak lotesleak ez diren arren, Nafarroako Gobernuaren kontsulta organoa da. Hala, onarturiko adierazpenean, María Chiviteren gobernuaren premiazten du euskara Nafarroa osoan ofizial bihurtu dezan, erakunde, eragile eta herritar askoren aldarrikapena bere eginez.

Legea onartu zela 35 urte igaro diren arren, ia aldatarik ez duela izan dio Euskararen Nafar Erakundeak, eta oroitarazi du indarrean jarri zenean legetariek ziurtatu zutela eremuak ez zirela finakoak eta aldatu zitezkeela. “Gizartea errotik aldatu da, eta eremu bakoitzean dauden euskaldunen kopurua ere bai. Zail izan dugu euskaldunak ez dagoen udalerririk aurkitzea”, dio bere idatzian. Ikastetxeetan edo euskaltegietan euskara ikasten duten herritarrak asko dira, baita eremu euskaldunetik eremu mistora edo ez euskaldunera lanera nahiz bizitzera doazenak ere.

Euskara ikasteko eta erabiltzeko eskubidearen aldeko aldarrikapenak, ekimenak eta mugimenduak “bizi-bizi” daudela erakusteko hainbat adibide aipatzen dira: Cortesko adierazpena, Mendigorriko edo Castejongo eskaerak, Errigora ekimena, eremuz aldatzeko udalen eskaerak...

“Gauzak garbi esanda: lege honek nafarrak diskriminatu egiten ditu eremuaren arabera”, dio adierazpenak. Horregatik, Nafarroako Gobernuari zuzendu zaio, Nafarroa osoan euskara ofizial izan dadila eta “euskaldunen legezko baztertzea” amaitu dadila eskatzeko.

Industrializazioak loa aldatu zigun



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Londres, XVII. mendea. Hiriko artxi-boetako dokumentu kriminaletan loari buruzko hainbat erreferentzia jaso zituzten; “lehen loaldia” eta “bigarren loaldia” aipatzen zituzten, baita tarteko esna-aldian egiten zutena deskribatu ere. Roger Ekirch historialari estatubatuarra hortaz jabetu zenean, gaia sakonago iker-tzea erabaki zuen, eta 2001ean *Sleep We Have Lost: Pre-Industrial Slumber in the British Islands* (“Galdu dugun loa: Industria aurreko lozorroa britainar uhartertan”) lana argitaratu zuen *The American Historical Review* aldizkarian.

Ekirchek Europako beste artxibategi batzuk, gutunak eta orotariko argitalpenak miatu zituen, eta ondorioztatu zuen Aro Modernoko Europan lo bifasikoa deritzona nagusi zela. Industria aurreko europarrek iluntzean lo hartzen zuten. Bizpahiru ordu lotan eman ondoren, gau erdi inguruan esnatzen ziren. Esna-aldi horretan, batzuk ohean geratzen ziren, otoitzean, hausnartzen edo sexu harremanak izaten. Beste batzuk jaiki eta etxeko lanetan aritzen ziren, edo bizilagunekin solasean. Eta, artxibo kriminalek agerian utzi bezala, baziren lapurtzeko aprobeztatzen zutenak ere.

Litekeena zen ohitura hori Erdi Arotik etortzea eta kristautasunean izatea jatorria. VI. mendean San Benito monjeak gauerdian otoitzerako esnatzera behartu zituen eta beneditarren ohitura hori gizarte osora zabaltzeko zela pentsa zitekeen.



Endymion (John William Godward, 1893).

Baina Ekirchek egile klasikoak erreparatu zituen eta lo bifasikoaren erreferentziak topatu zituen Homeroren, Tito Livioaren edota Plutarkoren idatzietan. Gainera, gaur egun, isolatuta bizi diren eta argi artifizialik ez duten hainbat komunitatetan oraindik ere bi alditan lo egiten dutela dio.

1990eko hamarkadako esperimentu batek berretsi zuen ideia hori. Marylandek (AEB) NIMHko Thomas Wehr psikiatrak “historiaurreko” lo baldintzak ezarri zizkien zenbait subjektuari eta, aste gutxiren buruan, denek loaldi zatiturako joera hartu zuten.

Industrializazioak eta, zehazki, argi artifizialak bultzatu zuten lo ohitura

naturalak aldatzea. Edo, hobe esanda, industrializazioak inposatu zuena argi artifizialak ahalbidetu zuen. Industriak eskatzen zuen langileen ordutegiak zorrozte eta sinkronizatzea; denbora monetizatu egin zen. Eta lanean produzitzeaz gain, langileek kalean kontsumitu behar zuten, sistema berriaren makineriak ondo funtziona zezan. XVIII. mendearen erdialdean lehen kale-argiak jarri zituzten Europako hiri nagusietan, loaldi bakarreko ohitura txarrari bidea argituz.

Izan ere, geroz eta gehiago dira lo bifasikoa osasungarriagoa dela dioten profesionalak, baina jakitun dira gizarte postindustrial honetan loaldi naturalera itzultzea ezinezkoa dela. ●



Bizantziar mosaikoa olibondoen azpian


Salman al Nabahin Gazako zerrendako nekazaria konturatu zen bere lurretako olibondo batzuk ez zirela behar bezala hazten. Semearekin batera, zuhaitz horien azpian hondeatzen hasi zen, arazoaren bila, eta duela 1.300-1.500 urteko mosaiko bizantziar ederrarekin egin dute topo, animaliak irudikatzen dituen

30 metro koadro inguruko pieza, egoera ezin hobean kontserbatu dena. René Elter arkeologoaren hitzetan, “Palaestina Secunda bizantziar probintzian aurkitutako mosaiko aberatsena da”. Salmanentzat, aldiz, “altxor bat baino gehiago da; eta ez da pertsonala, palestinar guztiona baizik”. ●

ZUHAITZEN ESPIRITUAK ETA GURE MOTOZERRAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Tokioko Meiji Jingū santutegia. Zuhaitzak bisitatzeko protokolo berezi bat dute: bideetatik ez dira ateratzen zuhaitzen lurra ez zapaltzeko; eta inork ez du zuhaitzetik historik, hazirik eta ezer hartzen, basotik ez da ezer kentzen.

Iratsaioa mikazten didaten galdera horietako bat egin didate duela ez asko. Haur-eskola bateko jolastokian bizi zen urki (*Betula spp*) batek aurten ez du historik eman.

Uztailerako historik eman ez badu, hil den seinale. Ez dut egundo ezagutu (ezta erreferentziarik izan ere) inon sasoi oso bat historik gabe irauin eta ondoren bizi izan den zuhaitzik. Azak ontzeko enborrean jo, tak-tak, eta hutsa dagoen soina egiten omen du.

Bidali digun argazkia kalitate kaxkarrakoa izanagatik, ederki antzematen da gertaturikoa. Enborretik zabaldu beharko lirakeen adar nagusiak falta dira. Horien ordez, adar mehe luxe batzuk besterik ez da ikusten. Bateren batek ederki sartu du motozerra; inolako gupidarik gabe, brun-brun eta blaut lurrera. Zuhaitzari luzatzen utzi beharrean, hobe beharrez adarrak moztu eta berriak zabalera eman eta umeak dabilzan tokian adar horiek erortzeko arriskua gutxitzeko asmoarekin egiten dira horrelako astakeriak. Hasteko, urkiak zur ahula du, zauri handiak ixteko

gaitasunik ez du eta konturatzerako barrua usteldu eta hustu zaio. Orduan bai dela arriskutsua; zauri horiek indarrak desorekatu egin dituzte, eta, ondorioz, haustura gertatzeko arriskua askoz ere handiagoa da. Haurrak itzalik gabe eta arriskuan. Bururik gabe hartutako erabakiak. Gu denon ondarea den landaredia publikoaren aurkako erabakiak; beste behin, ezta ikasteko ere balioko ez duen ekintza okerra. Ezjakintasunaren kultura hezurretaraino sartu zaigu, eta beldurra sortzen digute gu baino handiago, bizitza askoz luzeagoko eta adimentsuago diren zuhaitzek. Beldurrean igeri dabilzan usteak oinarri pentsatzen dugu, ito beharrean.

Japonian beste bukoiko sagardoa eta sakea dituzte. Badakite, zuhaitzek onura asko ematen dute: aire garbia, karbono xurgatzea eta hain neurgarriak ez diren hainbat onura: han, antzinako zuhaitzak eta basoak aspalditik estimu handitan dituzte, eta euren esanahi kulturala eta espirituala aintzat hartzen dituzte; hala, herrialdearen iraganaren eta orainaren arteko harremanak sus-

tatzen dituzte. Zuhaitzek eguneroko bizitzako zalapartan atsedena eskaintzen dute. Zuhaitzekiko begirunea aspaldikoa da japoniar kultura. Han sortu zen Shinto erlijioa eta horrek dio ehun urtetik gorako zuhaitzetan espirituak bizi direla. Kodama izeneko espiritu horiek zuhaitzaren nortasunean garatzen dira. Lehen Japonian, zuhaitz zaharrak errespetuz eta kontu handiz hartzen ziren. Gaur egun, zuhaitz zahar horiek soka sakratuekin markatzen dira, inork moztu edo kalterik egin ez diezaie eta zuhaitzaren spirituak ez daitez haserretu.

Tokion Meiji Jingū santutegia eraiki zuten 1920an, eta “betiko basoa” sortzeko 100.000 zuhaitz landatu. Egun hamar bat milioi bisitari jasotzen ditu urtero, eta zuhaitzak bisitatzeko protokolo berezi bati lotzen zaizkio: bideetatik ez dira ateratzen zuhaitzen lurra ez zapaltzeko; eta inork ez du zuhaitzetik historik, hazirik eta ezer hartzen, basotik ez da ezer kentzen; eroritako hostoak ere lurrean geratzen dira.

Tokitan gaude gu. Gure haur-eskolako urkia han jaio izan balitz... ●

ITTURBALTZA

“HARAGIARI FAMA TXARRA KENTZEKO GARAIA DA, GAKOA ABEREEN MANEIUAN DAGO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2009tik dihardu Unai Beitia bizkaitarrak Itturbaltza abeltzaintza proiektuan buru belarri, Maider Asla emaztearekin eta honen anaia Unaiekin eskuz esku. Moxal haragiarekin hasi ziren, zuzeneko salmenta eginez, baina urteotan proiektura bestelako espezieak ere sartzen joan dira, hala nola, behiak, txerriak, ardiak eta oilaskoak. “Abeltzaintza birsortzailea” deiturikoa praktikara daramate Mungia eta Gamiz-Fika artean duten lursail zabalean, eta eredu horren dibulgazio lanean ere ari da Beitia. Lekunberrin irailaren bukaeran ospatu ziren Abeltzaintza Birsortzailearen VI. Iberiar Topaketetan parte hartu zuen, esaterako.

NATURAN BELARJALEEK DUTEN PORTAERA IMITATUZ

“Asko laburbilduta, naturaren alde lan egitean datza abeltzaintza birsortzailea, animalien maneiua naturan belarjaleek duten portaera imitatzean, alegia”, azaldu du Beitiak. Afrikako sabanako dokumentalen adibidea jarri du, hobeki azaltzeko: “Talde handitan ibiltzen dira animaliak, eta inoiz ez dira luzaroan belardi berean gelditzen, beti ari dira mugitzen”. Abel-

tzaintza birsortzailean ere, abere taldeak landa berean denbora gutxi izaten dituzte, egun bat edo bi, gainabeltzaintza ekiditeko. “Lursail txikietan banatzen dugu ingurua, eta egunero lursailez aldatzen ditugu, belardiari atsedean denbora nahikoa emateko”, dio.

Neguan gutxienez 90 atsedean egun eta udan 30 ematen diote ganadua pasatu den lursailari. Horrela, belarrari eta landareei gelditu zaien energiarekin aurrera egiteko aukera ematen diote, eta lurra konpaktatzea ekiditen. Animaliei dagokionez ere, abeltzaintza eredu honetan ez darabilte desparasitatzailerik -izatekotan, naturalak, eta kantitate txikian-, animaliak lursailez aldatzearekin parasitoen zikloa moztzen delako. “Azkenean, esaten da naturan belardiak eta belarjaleak elkarregaz eboluzionatu dutela milioika urtetan, eta sinbiosi bat sortzen dela horien artean”, dio bizkaitarrak.

INDARRA HARTZEN DOAN MUGIMENDUA

Oraindik nahiko bazterrekoa den arren, nekazaritza eta abeltzaintza birsortzailea pixkanaka indarra hartzen ari dela dio Beitiak. Baina arriskuak ere ikusten dizkio horri, esaterako, beste kasu askotan gertatu bezala, korporazio handiek haien diskurtsoa -edukiz hustuta- bereganatzea. “Horien kontra ezin dugu deus egin, haiek jarriko dizute etiketan ‘abeltzain-



tza birsortzaitetik eratorritako esnea””, gehitu du.

Gamizko baserrian haiek ekoiztako haragiaren zuzeneko salmenta egiten dute Itturbaltzako kideek, eta Bilboko eta inguruko azoketara ere joaten dira maiz. Azken urteotan haragia desprestigiatzeko egon den joerari buelta emateko garaia dela aldarrikatu du abeltzainak: “Denok sartzen gaituzte zaku berean, baina abereak, belarjaleak eta hausnarkariak beharrezkoak dira, maneiuan dago koxka”, dio. Egungo gizarte modernoaren hipokresiaren adibide bat gehiago iruditzen zaio haragiarekiko jarrera. Hori, eta jendartearen gehiengoak baserri munduarekin batera hartu-emanik ez izatearen adierazle. ●



Lodosako Pikilloa

**HEMEN DAGO
NAFARROA**



Sin Límites edo nola errepikatu lehen mundu birari buruzko narratiba konbentzionalak

Irailaren 6an Victoria ontzia Sanlúcar de Barramedara iritsi zeneko V. mendeurrena ospatu zuten, bost mende lehenago portu hartatik abiatu eta hiru urte geroago lehen mundu bira osatu izana gogoan. Horrelako oroipen ospakizunetan ohikoa denez, urteotan zeharkaldia gogoratzeko era guztietako kultur jarduerak egin dira. Horietako bat da *Sin Límites* telesaila, zabalpen handienetakoa izan duena.

 SANTIAGO ERASO BELOKI

Erakunde sustatzaileen webguneetan ibilbide azkar bat eginez gero, gertakarien konplexutasun historikoan sakondu beharrean, ia proposamen guztiak beren heroiak gehiago handitzera bideratu direla ikusiko dugu, bereziki Fernando Magallaes eta Juan Sebastian Elkano liderrak – areago esango nuke, horiek bakarrik –, eta era guztieta-ko narrazio heroiko, patriotiko edo identitarioak indartzen jarraitzen duten kontakizun konbentzionalak azpimarratzen dira. Zoritzarrez, historia kontatzeko modu horrek, batez ere errege-erreginen eta aktore indibidualen biografietan oinarrituta idatzitakoak, gertakari sozialen garrantzia neutralizatzen du, eta alboratzen du, balentria partikularrez gain, bazirela baldintza politiko, ekonomiko eta materialak, pertsonen existentzia eta gertakarietan parte hartzeko arrazoiak zehazten zituztenak.

Spainia-ko Estatuan V. mendeurrenaren amaierako ekitaldi asko Sevillan egin dituzte, eta gehienek horrelako ospakizunen ohiko kanonak jarraitu dituzte, Fura del Bausen –nola ez barenegarren ikuskizuna barne. Oraingo honetan, ohiko parafernaliarekin, 500 kiloko sirena bat erabili zuten jasangarritasunaren eta planeta urdinaren enbaxadore gisa (ezin keinuren bat falta erretorika berdeari). Gainera, Sevillako Udalak, irudimen politikorik gabeko erakustaldi batean, Magallaes izena jarri dio bere kultur-gune berriari. XVIII. mendeko eraikin historikoa da, 20.000 metro karratu dituen, antzinako “Artilleria fabrika” zen, interes arkitektoniko handikoa eta, gaur egun, birgaitzeko bidean dagoena. Egungo Europako kultura politikek eta estrategia ekonomikoek eskatzen dituzten helburu askori erantzunez, ekipamendua “Kultura eta Sormen industriaren Ekintzailetzara” bideratuko

da, ez beste inora. “Artilleria fabrika” jatorrizko izena onartzeak lotsa eman diela dirudi; izenak potentzia semantiko handia du, eta behartuko lituzke politika kulturalak aplikatzera, zeintzuek ausardiaz eta zorrotzasun politiko, etiko eta estetiko hausnartzera bultzatzen duten izenaren zentzu historikoari buruz eta egungo bizi-baldintza sozialei aurre egiteak ekarriko lituzkeen erronkei buruz.

Ziur nago salbuespenak egongo liritekeela orduko gertaera historikoak berriro kontatzerakoan ¹batez ere ingurune akademikoan ², baina araua klaxeak eta konbentzio narratiboak errepikatzea izan da. Duela hiru urte, ospakizunen hasieran, nire blogean *Revolver la historia de héroes y naciones* (Nazio eta heroien historia irauli) artikulua idatzi nuen, eta bertan azaldu nuen horrelako ekitaldiek historiaren ikuskera erromantiko eta heroikoari eusten diotela oraindik ere, eta uko egiten dietela haien konplexuta-

sunari eta munduaren egungo konfigurazioan dituen inplikazioei.

Horrela ere gertatzen da komunikabideetan oihartzun handiena izan duen ikus-entzunezko produkzioetako batean, *Sin límites*. Hacia los confines del mundo seriean. Ekainean estreinatu zuten, TVEk – estatu mailako kate publiko bakarra – eta Amazon Prime Videok ekoizita. Sei kapitulutan espedizioaren gorabeherak deskribatzen dituzte, eta tramak Magallanes eta Elkanoren gorabehera pertsonaletan zentratzen dira batez ere. Telesailak historiaren ikuskera mitologikoan sakontzen du, protagonista nagusien bizitza eta mirariak kontatzen dizkiguna, eta gertakari haiek egungo mundua irudikatze orduan duten garrantzi politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala ia alde batera uzten duena.

Hasteko, seriearen izenburuak berak azpimarratzen du munduaren kontzeptio “eurozentriko” jakin bat. Hau da, “erdigune” bat duen planeta bat, ezaguna eta nagusia dena, eta beste zati bat lurra- ren mugetan dagoena, menperatutako periferia urruna eta ezezaguna. Carlos

I.a Espainiakoak –Gaztela, Aragoi eta Nafarroako koroak batuazati ondoren horrela izendatu– hasitako ikuspegi inperialista eta koloniala da. Erromako eta Germaniako Inperio Santuko enperadore ere bazen errege hura nabigazio proiektu haren bultzatzaile nagusia izan zen, espezieen merkatua, lurren jabetzea, natura eta giza ondasunen erauzketa hedatzeko biderik onena aurkitzeko asmoz eta, hala, bere boterearen eragina handitzeko. I. Wallerstein-ek *Mundu-sistema modernoa* bere lan monumentalean xehetasunez kontatu zigun bezala, bidaiari haiek, “aurkikuntza” edo “munduari itzuliak” gisa izendatutakoak, XVI. eta XVII. mendeetan monarkia absolutuak indartu zituzten itsas zeharkaldi eta espedizio komertzial handien parte ziren. Aurrerago, Europako estatuak sendotzeko aukera eman zieten monarkia horiei, eta aldi berean, beren irudi eta antzera, konkistatutako lurren mapak birmoldatu zituzten; eta ordena ekonomiko berri bati, kapitalismoari, bidea ireki zioten, zeinean ondasun trukea, kolonietako baliabide materialen

ustiapena eta giza esplotazioa nagusitzen ziren, batzuen onurarako eta beste kalterako.

Kultura industriarentzat askoz errazagoa da zenbait konbentzio narratibo azpimarratzea, erosoagoa baita pentsatzea historia ez dela erraz kontsumitzeko moduko sinplifikazio mitiko batzuk besterik. Hala ere, nire ikuspuntutik, mundu biraren mendeurreneko ekitaldietara hainbeste baliabide bideratu duten erakunde publikoek aukera baliatu ahal izan zuten, *Estudios postcoloniales*. *Ensayos fundamentales (Ikasketa postkolonialak. Funtsezko saiakerak)* liburuan Sandro Mezzadrak dioena parafraseatuz, ondorengo saiatzeko: gertaerak oroitzea leku geografiko eta esperientzia historiko ugaritatik abiatuta, historia unibertsalaren ikuspegi bakar bat inposatzeko saiakerak ezegonkortu eta deszentratuko lituzketen askotariko begiradak gurutzatuz, estereotipo kolonial jakin batzuetatik askatzea ahalbidetuko liguketenak. Narratiba hegemonikoe- tatik aldenduta, Chimamanda Ngozi Adichiek *El peligro de la historia única*



(Historia bakarraren arriskua) lanean gogorarazten digun bezala, historia ezin da osotasunetik idatzi, mundua osatzen duten askotariko zentroetatik baizik, bakar bat ere ezin baita gainerakoei inposatu.

Tamalez, oraingo honetan ere ez da horrela izan. Aitzitik, erretorika historiografiko konbentzionalaren klixreak nabarmendu dituzte berriro. Telesailaren zuzendaritza artistikoaren ikuspuntuak itsasontzietan jarri du narrazioaren fokua, nolabait ere, munduaren erdigunea irudikatzen duen plato bezala funtzionatuz, metropoli konkistatzailearen espiritu heroikoaren itsas metafora gisa. Gainerako lurraldeak eta paisaiak, telesailan nekez erakusten dituztenak, espazio exotiko huts bilakaturik, tramaren bigarren mailako lekuak dira, eta politikoki hutsalak. Aitzitik, seriean etengabe azpimarratzen dute mugarik gabe hedatzen den espedizioaren garrantzi militar eta estrategikoa (mugarik gabe ustiatu daitekeen pla-

neta bat, historia globalari, kapitalismo estraktibistaren jatorriari eta kolonialismoari buruzko teoria jakin bat azpimarratzen duen ikuspegi narratiboa).

Horregatik espedizioari buruzagiak eta haien gizonak dira giza izaera duten telesaileko izaki bakarrak, Gaztelako gortean geratu ziren nobleziako protagonistekin batera, horien artean Magallaesen emaztea, haurdun zegoen eta, nola ez, senarraren ausentziagatik nahigabetuta. Beatriz de Barrosaren bigarren mailako pertsonaia telesaileko emakume ia bakarra da, ziu aski, aktore-zerrendan emakumeen gutxiengo kuota betetzeko. Ikuspegi politikotik kezkarria zera da, gainerako pertsonak eta haien bizilekuak –gehienetan ia izenik gabekoak– gidoiaren ezbehar hutsak direla. Are okerrago, ahotsik eta hitzik gabeko gizon eta emakume horiek, mehatxuzko gerlari ikusezin gisa irudikatu dituzte; edo basati hiltzaile; edo esklabo, masa beltz anonimoko parte, animalien antzera kaiolan sar-

tuta; edo emakume sexualizatu edo –amodiozko trikimailuen bidez– idealtzatuen gorputz gisa, arrotzen arteko harremanei buruz –itxuraz onartutakoak– ikuspegi erromantikoa proiektatzen dutenak, baita nabigatzaileen kultura, erlijioa eta ohituretara egokitzeko prozesu “boluntarioak” irudikatzen ere.

Zentzu horretan, Jauna hartzen ageri diren indigenen eszena adibide bikaina da erakusteko historiaren aldetik nola banalizatzen diren kolonizazio erlijioso, hibridazio kulturalaren prozesu luzea eta mestizajea. Horrelako narrazio sinplifikatzaileen bidez azpimarratzen dute periferia kolonialak eta hango biztanleak espazio ezezagun itxiak direla, ukitu gabeak, etnikoki garbiak eta kulturalki tradizionalak, Claude Levi-Straussek “historiaren eremu zaharrak” deitzen zituenak.

Mary Louise Pratt-en arabera, *Modernitate Ameriketatik* lanean, une historiko horretan hasi zen “abentura euro-imperial” handia eta desberdinarekin topo



Aurre emanaldia 2022ko ekainean egin zuten Madrilgo zinema batean. Telesailaren produktore Miguel Menéndez de Zubillaga bilbotarra, Simon West zuzendaria eta aktoreekin batera daude Espainiako Erregea, Defentsa ministro Margarita Robles, Armadako Estatu Nagusiko almirante buru Antonio Martorell eta Madrilgo alkatea, besteak beste.

egitea. Mundu Zaharreko europarrek XV. mendean lehen aldiz Mundu Berriko herri eta kulturekin topo egin zutenean, galdera bat egin zioten elkarri, eta ez zen izan, hain zuzen ere: ez al zarete seme-alabak edo anai-arrebak; ez al zarete seme-alabak edo ahizpak?. Ez, galdera izan zen ea benetan gizakiak ote ziren; ea gure espezie berekoak al ziren; ea beste sorkuntza batetik sortu al ziren. Horrela planteatu ziren lehen aldiz Mendebaldeko diskurtso modernoan arraza desberdintasunaren auzia eta kristautasunaren boterearen jatorrizko teologiaren gaia. Mende luzez, haien ambizioa izan zen giza arrazaren bi sorkuntzak-haien artean elkargaitzak direnak- sailkatze-sisteman bereizketa-lerro bitar bat ezartzea, eta erlijio kristauak arau moralen eraketan zuen nagusitasuna azpimarratzea.

Errepresentazioak ez dira inoiz xaloak, haiekin batera beti ekartzen dituzte subjektibazio-forma nagusiak ezartzen dituzten ikuspegiak, imaginario erreakzionarioak betiketozen dituztenak. Nahiz eta, zorionez, narratibitate mota hori, zuria eta Mendebaldekoa, zalan-tzan jartzen duten gero eta lan gehiago dauden (oraintsuko batzuk aipatzearen, Lucrecia Martelen *Zama* edo Raoul Pecken *Basati guztiak sarraskitu*), zinemaren industriak, oraindik ere, bere ekoizpen askotan, ikuspegi kolonial, arrazista eta patriarkalaren itzal luzea zabaltzen jarraitzen du. Indigenak agertzen diren *Sin Límites*-en irudiek ere kontakizun paternalista eta xenofobia legitimatzeko joera dute, eta europar zuri zibilizatuek "bestearekin" izandako lehen topaketak azaldu zituzten lehen deskribapen historikoen oso antzekoak dira; Stuart Hall-ek "arrazak, etnia eta nazioaren zoritxarreko triangelua" deitzen duena eratzen lagunduz. ●

Telesaila iragartzeko Getarian jarritako karteletako bat.



LIBURUA

Abenturak Moskun barrena



ANNA KOPEK ETA MATIOXKEN KONDAIRA

HARITZ LARRAGETA

EREIN, 2022

XABIER ETXANIZ ERLE

Oker ez banago hau da Haritz Larrageta-ren lehen liburua, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratua, eta haurrei zuzendua.

Idazlea hasieratik zuzentzen zaio irakurlari, "Anna Kopek ezagutzen duzue?" galderarekin, eta horrela ekiten dio berehala Jokin eta Uxue neba-arreben istorioa kontatzeari. Ama kazetaria dute eta munduko futbol txapelketaren berri eman behar du Moskutik. Hori dela-eta, hirurak joango dira Errusiako hiriburura zenbait aste pasatzera.


Liburuan, estilo errazez eta narrazaile orojakileak irakurlari informazio asko emanez, bi gazteen abentura kontatzen zaigu; hoteleko giroa, hizkuntzarekin dituzten zailtasunak, nola ateratzen diren beraiek bakarrik hoteletik kanpo

buelta bat ematera, emakume bitxi batekin izaniko enkontrua eta horren ondorioz izango duten egun bateko abenturazko zurrumbiltoa. Matrioxka errusiar panpina bitxi biren istorioa eta horiek elkartzean denbora gelditzeko duten ahalmena dugu abenturaren muina; matrioxkak eskuratu eta boterea eskuratu nahi dutenen aurrean panpinak bereizi eta gordetzea defendatzen duen emakume talde batekin egiten dute bat bi neska-mutiek, eta arriskuak, abenturak, une larri eta atseginak igaroko dituzte inoiz ahaztuko ez dituzten egunetan.

Erraz irakurtzen den liburua dela esan dugu, irakurleak hasi eta irakurtzen jarraitu nahi duen liburua; baina, egia da ere, errealista izan nahi duen egoera batean sinesteko zailak diren gertakariak

planteatzen direla. Kontakizunak oso tonu sinplea du eta idazkera literario aldetik hainbat hutsune ere baditu. Esaterako, badirudi Jokin eta Uxue direla narrazaileak –beraiek sorturiko blog batean, amaieran iradokitzen den bezala–, baina narrazaileak beste bat da, orojakilea.

Alde horretatik, gustura irakur daitekeen liburu baten aurrean gaudela esan dezakegun arren aitortu behar da literarioki gehiago landu beharrekoa dela, eta hori esaten dut apustu handia egin delako liburuaren edizioan –ilustrazioen aldetik, koloretan eta oso adierazkorrak, Marko-Maëla-ren eskutik eta azal gogorreko edizioa eginez–, eta badirudielako hauze dugula Anna Kopek misterioaren istorioak jasoko dituen bilduma bateko lehen alea. ●



MUSIKA

Euskal dantzarako frekuentzia guztiak



NEOMAK



NEOMAK

NEOMAK

AIRAKA, 2022

XALBA RAMIREZ

Neomak taldeak tradizioaren perkusioa dakar, molde elektronikoz zainduarekin. Arrasateko Leire Etchezarreta, Amets Ormaetxea eta Irati Gutierrez, Asteasuko Garazi Otaegi, Zarauzko Eneritz Aulesti, Zizurkilgo Maria Lasa eta Debako Alaitz Eskudero dira zazpi kideak. Denak dira trikitilari eta panderojoleak, eta denak aritu ziren Kepa Junkera & Sorginak proiektuan.

Junkerarekin zuten proiektua bertan behera geratu zenean, zazpi neskek elkarrekin abiatu zuten Neomak, "ilargi berriak". Perkusio eta trikitiekin, energia eta konplizitate handiko egitasmoa jarri dute martxan.

Zazpi kanta dituzte haien lehen lan honetan eta zazpitan trikiti doinuak eta elektronika ukituak nahasten dira, perkusio tradizionalen erritmoarekin,

baina molde modernoan beti.

Erreferentziak hor dauden arren, ez du jarraitzen, esaterako, Baiucaren edo Rodrigo Cuevasen ildoak, eta pena pixka bat ematen dit. Uste dut Zetakek Erramun Martikorenarekin duen kanta sortzen didan gatazka antzekoa dela. Tradizioa oinarri hartzea, tradizioaren aieririk gabe.

Etxahun Irurik esan omen zuen Mikel Laboa entzutean: "Kanta horiek bizirik ehortziak dira". Gitarra kantatu xibero-tarrari kentzen ziolako zuen arnasa. Eta arnasa eta tinbrea izan dira euskal zera horren muina: armonia basatiak eta ez neurtuak, tonalitate eta tempo anbiguoan. Mauriziaren punka zen tradizioa.

Oteizak bere soinu artxiboan azaltzen zuen nola miresten zituen AEBetako beltzak, gero eta beltzagoak zirelako, edo zer estilo eginik ere, gero eta barnerago

zihoazelako haien sustraiak: "Ni beltza naiz", zihoen audioan!

Euskaldunok nola izan euskaldun estilo ezberdinetan? Agian ez da galdera egokiena, estetika esentzialista bat proposatzeko arriskua besterik ez delako agerian. Baina, agian, lagundu diezaguke galderak tradizioaren muina, eta ez soilik azala, maitatzen.

Neomak taldearen lehen lan honek ekoizpen oso zainduarekin lantzen ditu euskal dantzarako frekuentzia guztiak. Energia hor dago, ilargiarena eta arbasoena da, agian. Euskal futurismoan sinesteko arrazoi on bat da disko hau. Hemen esanek ez dezatela, beraz, entzulearen belarria engainatu. Diskoak baduelako bide urratzailearen bertute hori. Eta bidea ibiliaz egiten da, zer demonio. Zuzenean ikusteko irrikan. ●



"Bihar Burgosera noa, erdu gura baduzu"

XALBA RAMIREZ ARRIGURI

Handitasuna gauza txikietan agertzen da. Bost axola zenbat estadio betetzen dituen artista batek, zenbat *sold out* eta zenbat sari. Musikarekin zer eragiteko gai zaren; hori da axola duen bakarra.

Aitortzen dut, ez dit inoiz arretarik eman La Maravillosa Orquesta del Alcohol Burgoseko taldeak. Joan den urtean, ordea, Bizkaiko Arriguri ekoiztetxeak disko berriko bideo klipak egin behar zituela-eta, gertuagotik ezagutzeko aukera izan nuen. Eta pozten naiz horregatik.

Nuevo Cancionero Burgalés da lanaren izena. Burgoseko kantu tradizioaletatik abiatuta egindako lan labur baina fina da. Ordura arteko pop moldean, baina sotila eta gordina. Oso *burgalesak* direlako La MODAkoak, eta herriarekin harremana landu behar delako, hiru eguneko bira bat antolatu zuten abuztuaren amaieran, husten ari den Gaztelako herrietatik. Dokumental bat egiteko aitzakiarekin, hiru egunak eman ditugu haiekin.

Pampliega, Poza de la Sal eta Covarrubias dira herriok. 300 biztanletik gertu

bakoitza. Udan gehiago, neguan gutxiago. "Herri txikiek kulturarako eskubidea dutelako" egin dute bira hau; doako kontzertuak eskainiz. 3.000 lagun ez ziren elkartu ba, Pampliegako kontzertuan!

Goizean goizetik aritu ginen herriko bizilagunekin solasean. Lehen emakumea, 80 urteko andre jator bat, "Pampliegan jaio eta Pampliegan hilko dena", baina bizitza osoa non eta Legazpin eman duena. Ez da kasualitatea, ezagutu dugun jendearen %90a Euskal Herrian bizi da, edo bizi izan da, edo gertuko senidea du bertan.

Eta joan dira pertsonaiak azaltzen: Pedro kultura zinegotzi super-hunkitu eta eskertua; Paco eta Mariangeles poetatzaileak –eta haiekin batera Pampliegako bodega-kobazuloetara bisita eta dastaketak–; David botagilea eta Alberto odolkgilea –biak euren aitonen lanen oinordekoak–; 92 eta 93 urteko Don Evaristo eta Doña Honorata, herriaren bilakaera gogorra oroitzen. Izen propioz beterik daudelako *Castilla Comunerako* langile herriak.

LA MODA

NOIZ: Abuztuak 26, 27 eta 28.

NON: Pampliega, Poza de la Sal eta Covarrubias

Ez dut sekula horrelakorik ikusi. Jendea ilarak egiten, kontzertuan lekurik onena topatzeko, eta ilara egiten –ia hiru orduz!–, taldekideak agurtzeko. Eta, taldekideak, hiru orduz (!) agurtzen eta sinatzen eta agurtzen eta sinatzen. Pazientzia nondik ateratzen duten galdetuta: "Joder, jende hau gu ikustera etorri da, nola ez ditugu agurtuko ba!".


Burgoseko Beatles-ak dirudite, eta, hala ere, umil jarraitzen du taldeak. Erabakiak guztien artean hartzen, ingurua errespetatzen eta zaintzen. Eta herriari kantak eskaintzen. *Campos Amarillos* izan da gehien harritu eta hunkitu nauen kanta. Ikustea zenbat jendek egin duen negar, Gaztelako lur duin eta izorratuei kantuan: "*Que los campos más honrados / Son los que están preparados / Que los campos castellanos / Arden fácil en verano*".

Izen propioz betetako maleta bat eraman dugu etxera, eta kantei esker sortzen den komunitatea eta harrotasuna ere. Ahaztuak eta izorratuak bai, baina herri txikiek badutelako duintasuna oraino. ●



Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1					■									
2				■										
3								■						
4	■								■					
5	■				■									
6				■										
7							■							
8						■								



EZKER-ESKUIIN:

- Egipton asko omen daude. / Gaixo, errukarri.
- Zainetan dabilen isurkari. / Gonbit.
- Kakagale.
- Nafarroako herria.
- Orrialde. / Aterkia.
- Bare, lasai. / Tiraniaz jokatu.
- Sendagaia. / Lumatxa, lastaira.
- Sabelaldi berean jaioak. / Haragi-saltzailea.

GOITIK BEHERA:

- Hegaztien aho. / Nazioarteko Olinpiar Batzordea.
- Olerki lirikoa. / Basamortuko larre.
- Lur-zati trinkoak.
- Ultzamako herria (Nafarroa).
- Altu, garai. / Aipaturiko artikulua (laburdura).
- Gurtzea. / ...-tak, erlojuaren hotsa.
- Argazkiko mendia.
- Espainiako Gerra Zibilean ibilitako euskal gudarien batailoia.
- Letra grekoa. / Gipuzkoako herria.
- Bururatu. / Argi-izpi.
- Orbana, orina.
- Barazki hostotsuak.
- Kalika jokoko makila.
- Erakunde belikoa.
- Nafarroako mendia.

Sudokua

ERRAZA



9	7		8	1			4	
5	8		3	6	4	9	2	7
	4	3			7	6		
	9	2			1			4
4		8				3		
7			4		8	6	2	
			4	2	6	1	7	5
		7	1	5	9	4	3	
1	4	7						

ZAILA

5			1			3		
			5				9	7
		1	3	7	2			
		5	4					1
3				6				8
	6		1	9			7	
	8					7		6
1			7			5		
		7			1			2

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Lekaimeak, serorak
- Jokaldia, partida
- Joateko bidean
- Zerbaiten berri izan
- Egoera estua
- Ia-ia
- Ikasketak egin
- Haserre, amorrua
- Mingaina
- Altzari hankadun
- Buruzagi musulmana
- Amama
- Ugaria

MOJAK
NAROA

EBAZPENAK

ETA ASTIRIK EZ LANIK EZ ALFERRARENITZAKO ATOSITZITA NAROA AMONA IMANA MAHAI MIHIA HISIA IKASI KASIK KINKA JAKIN JOAKI JOKA MOJAK ANAGRAMAK

ZAILA

9	5	7	4	1	6	1	5	8	2
1	3	6	7	2	8	5	4	9	6
4	8	3	2	7	1	9	5	6	1
2	6	8	1	9	5	4	7	3	
3	1	4	2	7	6	9	5	8	
7	9	5	8	4	3	6	2	1	
8	4	1	9	3	7	2	6	5	
6	2	3	5	8	4	1	9	7	
5	7	6	9	6	1	2	8	3	4

ERRAZA

1	5	4	7	3	8	2	9	6
6	2	7	1	5	9	4	3	8
8	3	9	4	2	6	1	7	5
7	1	5	9	4	3	8	6	2
4	6	8	2	7	5	3	1	9
3	9	2	6	8	1	7	5	4
2	4	3	5	9	7	6	8	1
5	8	1	3	6	4	9	2	7
9	7	6	8	1	2	5	4	3

ESKER-ESKUIIN: 1. MOMIA, GAJO, 2. ODOL, GOMIT, HARKINA. GOITIK BEHERA: 1. MOKO, NOB, 2. ODA, OASI, 3. MOKORAK, 4. ILARREGI, 5. GOLI, AA, 6. GUR, TIK, 7. GORBEIA, 8. AMAIUR, 9. JI, ARAMA, 10. OTU, INAR, 11. TITA, 12. AZAK, 13. KALI, 14. OTAN, 15. AUZA.

Esti Urresola Solaguren

CANNESETIK DONOSTIAKO
ZINEMALDIRA



PANTAILA ANITZEN AROA, AUKERA ALA ARRISKU?

“Akaso erromantikoegia naiz, baina zinema aretoak badu zer bait iluntasunean sartu eta telefonoa ez begiratzea suposatzen dizuna: arreta kontzientea edo kalitatezkoa. Kontsumo moduak aldatzen badira, ekoizpen formulak aldatzera behartuta egongo gara. Ni ez naiz baikorra horrekiko: geroz eta gehiago kontsumitzeak ekoizteko lanik ez zaigula faltako esan nahi du; baina hausnartzen al dugu ikusten dugunaren inguruan? Irudi uholdeak zure gorpuztean uzten al du arrastorik?”

“Ikus-entzunezkoek botere eraldatzaile handia daukate”

Cuerdas lanak eraman du Donostiako Zinemaldira Esti Urresola Bideguren film zuzendari eta gidoigilea (Laudio, 1984). Kristalezko sabaidun alfonbra gorriek sarien fokupean harrapatu dute: Goya sarietarako aurre-hautaketara heldu zen *Polvo somos* bere lana, eta Canneseko jaialdian saritu zuten *Cuerdas* film laburra.

✂ IZAR MENDIGUREN COSGAYA 📷 DANI BLANCO

Atera klaketa. Zein eszenatan dago zure bizitza?

Orain bi uren artean nabil: *Cuerdas* laburra aurkeztu genuen maiatzean, eta jaialdien ibilbidea hasi berri du. *20.000 especies de abejas* datorren urtean estreinatuko dugu; grabaketa bukatuta muntaketa lanetan gaude.

Zer eragin edo ziztatu nahi du *20.000 especies de abejas* lanak?

Generoak bakoitza nola zeharkatu duen azaldu nahi izan dut, eta horrek harremanetan duen eragina. Istorioan, Ane (hiru seme-alabaren 40 urteko ama) identitate krisian dago, eta amaren etxera bueltatzea erabakiko du. Bidaia edo egoera horretan, mutil gisa irakurria den alabak familiaren aurrean nor den azaltzeko pausoa emango du. Ez dira umeak genero aldaketa egiten dutenak, eraldaketa hori familiak edo inguruak egiten du. Ispiluen jokoa, edo harremanen elkar eragina adierazi nahi izan dut film luzean.

Donostiako Zinemaldian izan berri zara. Zer du berezia alfonbra gorriak?

Ikus-entzunezkoetan lehen pausoak zinemaldian eman nituen, eta oso hunkigarria zait festibalari miresmenez begiratzen zion gazte hura gaur *Cuerdas* lana aurkezten egotea. Zorte handia da nazioartean hain garrantzitsua den jaialdi bat Euskal Herrian izatea. Gure zinema industriarentzat oso onuragarria eta baliagarria da: topagunea da, eta mundu mailako profesionalak etortzen zaizkizu, atzerrira harremanak sortzera joan behar izan gabe.

Bestalde, *Cuerdas* aurkezten nabilenez, Euskal Herrian izanik, proiektuan parte hartu duten aktore eta agenteek etortzeko aukera izan dute. Canneseko jaialdira ere gonbidatu nuen *Cuerdaseko* abesbatza protagonista, eta autobusean etorri ziren. Zinema komunitarioa da nire, istorioak haiei esker du egiazkotasuna, hori da konektatzeko bidea.

Zeren haria izatea nahiko zenuke *Cuerdas*?

Bi faktorek eraman ninduten istorio hau kontatzera. Batetik, ekofeminismoarekiko interesak. Bestetik, herriaren enpresa kutsatzaile handi bat



"Nire inguruko emakumeak ez dira pantailetan erretratatzeko direnen isla, eta haien falta nabari dut".

izateak ehun sozialari nola eragiten dion kontatzea interesgarria iruditu zitzaidan. Bilboko jardunaldi ekofeminista batzuetan izan nuen Muskizeko errealitatearen berri. Entzule gisa, oso irudi potenteak esnatu ninduen: 60 urtetik gorako emakume asko zeuden foroan, tokian tokiko borroketan erreferenteak, eta aktiboak. Zer pentsatua eman zidan: pantaila handietan adin batetik aurrera beti emakumeak amona edo alzheimer zein ahultasun roletan ageri dira.

Emakumeen iruditegia sozialki eraldatzeko asmoa dago zure lan gehienetan.

Nire inguruko emakumeak ez dira pantailetan erretratatzeko direnen isla, eta haien falta nabari dut. Ikus-entzunezkoek botere eraldatzaile handia daukate, eta nire lanek zentzu hori izatea nahiko nuke.

Euskara balio erantsia ala zailtasuna da nazioarteko zinema jaialditan lehiatzeko?

Banaketari dagokionez zailtasuna da,

ekoiztetxeek bikoizketa eskatzen dutelako (eta horrek gastu gehigarria). Jaialdiei begira, ordea, balio erantsia eman diezaioke hizkuntza gutxitu batean egiteak. *Loreak, Amama, Nora...* Sail ofizialetan ere lan batzuk atera izan dira. Gutxika aurrera goaz.

Pantailen aroan gaude. Ekoizpen katea aldatu beharra eragin lezake horrek?

Zinemalditik harago, ikuslearen profila mugatua da: espero dut zinema aretoaren katebegia ez desagertzea. Gehienak emakumeak dira, eta 55-75 urte bitartekoak. Gazteria ez da ari zinemara joaten, eta hori da etorkizuna. Ni kezkatuta nago. Frantzia gazteek hileroko bonoa dute, eta zinemara joatea aisialdiaren parte da. Asteburuetan ez dute pelikularik programatzen telebistan, jendea aretoetara joateko... Espainiako ekoizpen eta politika sistemek berrikuspen integrala behar dute.

Emakume zuzendariak ez zarete asko. Kristalezko sabairik bada?

Ikus-entzunezko fakultateetan gehien-go gara, baina zenbat emakume gaude zinema zuzendari lanetan edo galetako butaketan? Dena den, aitortu behar zaigu tokia hartzen ari garela eremu horietan ere; zuzendari berrien sailetan edo esperimentaletan emakume asko gaude... Baina zinemaldien sail ofizialetan? Industriaren mekanismo kontserbadorearen isla dira zinemaldietako sail nagusiak.

Beharrezkoa da lehen planotik orokorrera pasatzea, *zoom in* beharrean *zoom out* bat egitea: zenbat urterekin heltzen dira emakumeak lehen film luzeak egitera? Jaialdietako zein sailetan hartzen dute parte? Zenbat pelikula ekoizten dituzte orotara ibilbide profesionalen?

Aurrera begira, zuk zein proiektu dituzu esku artean?

20.000 especies de abejas. Ez dut makina baten gisa aritu nahi, gauzak ekoizteko beharrez, atsedena behar dut. Hunkigarritasun puntua berreskuratu nahi dut, istorio batek harrapatu eta horren atzetik ibili arte. ●

Protesta airatu bat

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Kataluniakoa, ez didazue ukatuko, triste da. Pasa den asteburuan egin zuten ekitaldi bat urriaren 1eko erreferendumaren bosgarren urteurrena gogoratzeko –“ospatzeko” esatea lartxo– eta traste txukunik ez zen atera handik. Carme Forcadell bihurtu zen protagonista, hitza hartu zuenean publikoaren parte batek txistuak jo zizkiolako. Bueno, berari eta ekitaldian parte hartu zuten beste batzuei ere bai, ikusle batzuek, antza, argi daukatelako nor den independentzia lortu ez izanaren kulpantea, akaso argiago independentzia egikaritzeko –ugh, hitz hori– modua baino. Hiru urte kartzelan pasa dituen politikaria xalbaldorki atera zen ataka horretatik, baina kontuak ez zeukan erremedio handirik ordurako.

Hori zergatik gertatu den termino *politique politicienne*-tan esplikatu daiteke, baina esplikatu dute honezkerok beste batzuek, eta niri interesatzen zaidana kontu honen parte kulturala da. *El Punt-Avui*-ren kronika batean irakurtzen dudanez, ekitaldiko publikoari begiratuta “adinaren batezbestekoak argi uzten zuten ez zela arratsalde familiar bat. Ezta gazteenena ere”. Artikuluan beheraxeago detaile batzuk ematen zaizkio irakurleari uler dezan *turra* ez dela bakarrik Frantziakoa: “Atriletik hitz egin zuten guztiak esan zuten uneraren batean ‘duela bost urte botoa eman genuen’ eta segitzen zuten beren interbentzioaren klimaxa bilatzen”. Publiko senior bat gehi ekitaldi luze, errepikakor, asperramorrante bat: osagai egokiak dira gauza desastre hutsa izan dadin.

Baina nik uste dut badagoela beste asuntu bat honetan guztian. Azken finean, nola iristen da pertsona bat, duela bost urte poliziak seguru egurtu zuena, ados, eta geroztik mobilizazioz mobi-



lizazio ibiliko zena, ordutik hona ezintasun kilo batzuk pilatu dituen, nahi duzuen guztia; nola iristen da pertsona hori, erreferendum harengatik kartzela-urte batzuk jan dituen norbaiti, desadostasunak desadostasun, traidore baten tratua ematera? Badago azpikorrante bat hor: dei iezaiozu garaiaren espiritua, dei iezaiozu gaur egun ia dena bizitzeko daukagun modua, edo dei iezaiozu, hitz bakarrean laburbiltzeko –Guy Debordek egin zuen bezala– espektakulua.

Ze, Kataluniako prozesuak asmatu zuen espektakuluaren gizartearen erremintak erabiltzen. “Irribarreen iraultza”, jende pila bat elkartzeaz gain estetika milimetrikoki kalkulatuta zeukaten mobilizazioak, Netflixeko telesail batek baino *cliffhanger* gehiago zeuzkaten erabaki parlamentarioak. Irudiek mediatizatutako harreman sozialen sistema kausa independentistaren zerbitzura jartzen saiatzeko esperimenduak bolada batez funtzionatu zuen. Baina

aspaldi honetan gidoilariak agortu samar dabilta eta ekoizten dituzten eszenak joan den asteburukoak bezala ateratzen dira –edo askoz okerrago: Rambletako atentatuen urteurrenean gertatu zena gogoratzea besterik ez dago–.

Hau dena, noski, ez da Katalunia-*ra* mugatzen den zerbait. Eta hori da inplikazio benetan totxoak dauzkana: hemengo edo hango arazoan aurrean, nagusitzen ari den portaera da beste mota bateko show bat eskatzea, ikus-kizuneko aktoreen aurka ausartzea, baina inoiz ez show-arekin daukagun harremana zalantzan jartzea. Norbaitek botoi nuklearra sakatzeko arriskua aspaldi ez bezalakoa den garai honetan, dena bizi dugu sareetan egurtzen dugun telebistako programa bat balitz bezala. Pepino atomiko bat buru gainera datorkigun egunerako, prest daukagu protesta airatu bat. Eta errudunen bat, etxetik ez oso urrun. ●

 **LURRA
HERRIARI
DEIKA**



**Euskal Herriko agroekologia mugimendua eta ARGIAren elkarlana.
Diseinu berriak azokan salgai. %100 kotoi organikoz egindako kamisetak.**

Prezioa **19,50 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**

 ARGIA Azoka



Artikulu hauek erosituta
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko
Mbolo Moye Doole
elkarteari.

Prezioa **28,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**